ARGIA

Koronabirusa, beldurraren krisia

SHOCK EKONOMIKOA ETA ESPERIMENTU SOZIALA

10-13.orriak

#2.681 | 2020 / 03 / 15 | 3,90 €

"Borrokan hilko naiz, ez gerra zikinak balaz josita"

24 I JESUS SANTRICH

Antolaketa feministarako deia entzun da

30 I MARTXOAK 8

Planifikatutako abandonu baten historia

44 I EUSKARAZKO BIKOIZKETA

LIBURUA SALGAI!
14€*

BERDEA DA MORE BERRIA

BIZKAIKO EGOITZETAKO GREBALARIEN TESTIGANTZAK

Onintza Irureta Azkune

Eskaerak egiteko sartu:
AZOKA.ARGIA.EUS
edo deitu: **943 37 15 45**

*Bidalketa gastuak 4 €

MANU ROBLES-ARANGIZ INSTITUTUA

ARGIA

ARGIA

2.681 zenbakia I Martxoak 15, 2020

Panorama

04 I ASTEKO ARGAZKIA
06 I AKTUALITATEA
07 I HUMANITATEAREN UNE GORENAK
07 I EZ HANKA EZ BURU
08 I EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:
JANUSZ KOLONDRA

Iritziak

19 I KARMELO LANDA
20 I SONIA GONZÁLEZ
21 I DIEGO PALLÉS
21 I CASTILLO SUÁREZ
22 I JOXERRA AIZPURUA

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

40 I BIZI BARATZEA
42 I ARGIA KOMUNITATEA
43 I DENBORAREN MAKINA
48 I KULTUR-KRITIKAK
50 I ZUZENEKO EMANALDIA
51 I DENBORA-PASAK
52 I ARGI-KONTRA: GARAZI LIZARRAGA LERTXUNDI
54 I BERANDUEGI

DANI BLANCO

30 I **MARTXOAK 8**
Donostian eman du eguna Onintza Irureta kazetariak. Antolaketa lanetan aritu diren Carmen Altuna eta Flo Rodríguez da Costarekin aritu da antolaketaz, alegia, mugimendu feministaren aurtengo leloa izan den horretaz.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 I NET HURBIL
Covid-19 izurriak Txina paralizatu eta mundua lurralde ezezagunera eraman du
Pello Zubiria Kamino

12 I MARGA BAJO
“Atzerrira joan beharrik gabe ekarri didate mundua migratzaileek”
Miel A. Elustondo

24 I NAZIOARTEA I JESUS SANTRICH
“Borrokan hilko naiz, eta ez gerra zikinak balaz josita”
Ibai Trebiño

34 I INGURUMENA I ZALDIBAR ARGITU
“Ez alarmistak izateko diote baina alarma kalean dago, eta beren gezurretatik sortu da”
Lander Arbelaitz Mitxelena

37 I HIZKUNTZA I ROSARIO PALOMINO
“Kanpotarrari gaztelaniaz eginda, esaten ari gatzaizkio katalanak ez duela garrantzirik”
Onintza Irureta Azkune

44 I KULTURA I EUSKARAZKO BIKOIZKETA
Planifikatutako abandonu baten historia
Gorka Bereziartua Mitxelena

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Maria Ortega, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartziandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olasolo, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enpresekin batera:

antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
iametza interaktiboa
ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.

CC BY SA

Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

EKOLOGIAREN SALEROSKETA

Azken asteotan ikusten ari gara hondakinen kudeaketa esku pribatutan uzteak eta haren kontrol zorrotza bermatu behar duen botere pubilkoaren utzikeriak osatutako bikoteak zer ondorio dakarren. Zaldibar erakusten ari zaigu honen alderik gordinena, baina bata bestearen atzetik agertzen ari zaizkigu beste kasu batzuk agerian utzi dutenak negozioa, ingurumenaren zaintza eta herritarron osasuna esaldi berean egoki jokatzea ia ezinezkoa dela. Berrerabiltzeko asmoz herritarrek emandako arropa mordoak Ziordiako pabiloi bateko bazterretan amaitu du. Legez kanpoko isurketa egiten harrapatu duten enpresa bat Ekotrade da. Izen egokiagorik...

GURELUR AXIER LOPEZ

ESPAINIAR POLIZIA GURE ETXERA ETORRI DA. SEMEA DUTE ORAIN JOMUGAN. MENDE BETE. LAU BELAUNALDI JARRAIAN. AITATXI, AITA, ANAIA, SEMEA ETA BOSTOK. SEMEAK KOMISALDEGIRA JOAN BEHARKO DU INAUTERIETAN MOXAURREZ JANTZITA IBILTZEAGATIK IRUÑEKO KARRIKETAN. POLIZIAK 14 URTEKO HAURRA FURGONETAREKIN HARRAPATU, ATXILOTU ETA OSPITALERA ERAMAN BEHAR IZAN ZUEN PELBISEAN FISURA ERAGINDA. ZAZPI GAZTE KOMISALDEGIRA DEITUZ ESTALI NAHI DUTE DENA

@gaizkaranguren

ZALDIBAR AUZIAN HAINBAT HEDABIDEK EGINDAKO LANA URKULLUREN KONTRAKO HIGATZE-KANPAINAREKIN LOTU DU ORTUZARREK: KAZETARITZA PROFESIOAREKIKO ETA KAZETARI PROFESIONALEKIKO ERRESPETU FALTA IRUDITZEN ZAIT

@ibanarregi

OSTALARITZAKO LANGILEEK PAIRATZEN DUGUN PREKARIETATEAZ GAIN, BELDURGARRIA DA JASATEN DUGUN TRATUA ETA DESPERTSONALIZAZIOA. ZERBITZU BAT ESKAINI BEHARREAN MORRONTZA EGOERAN GAUDELA DIRUDI. EGUNDOKOAK ENTZUTEN DITUGU ASTEBURURO

@ulaaiar

Ikastetxeak ixten hasi dira koronabirusagatik

ARGIA

Astekari hau jasotzen duzunerako egoera bestelakoa izango da beharbada, kopuruetan behintzat bai, egunetik egunera aldatzen baitu panorama koronabirusaren krisiak. Lerro hauek idazteko unean (martxoaren 9 goiza), albistea da, batetik, herriko bi ikastetxeak ixtea erabaki dutela Arabar Errioxako Bastidan, koronabirusagatik. Haur batek positibo eman du koronabirusaren test medikuan, eta beste eskolako haurrekin ere harremanetan egon denez, bi eskolak ixtea erabaki dute hamalau egunez gutxienez. Eta bestetik, Hezkuntza Sailak erabaki du Gasteizko hezkuntza zentro guztiak ixtea: haur eskolak, eskolak, institutuak eta unibertsitateak itxita egongo dira hilaren 23ra arte. Tartean da Odon de Apraiz ikastetxea (argazkian); bi irakasle koronabirusarekin kutsatu dira bertan.

Uneotan bost dira Euskal Herrian birus honen eraginez hildako pertsonak, guztiak 80 urtetik gorakoak eta beste gaixotasun batzuen eraginez. 109 kutsatu daude Euskal Herrian eta kasuen kopurua azkar ari da hazten.

GAIZKI ETA BERANDU

Gasteizen, osasun langileen artean hedatu zen izurritea. Txagorritxu ospitaleko lehen kutsatuarekin harremanetan egon ziren langileak berrogeialdian jarri zituzten, baita Olarizuko anbulatorioko langile guztiak ere. Osakidetzak protokoloa "gaizki eta berandu" ezarri zuela salatu dute sindikatuek.

Bestalde, izuak hartu du Italia eta herrialdea fisikoki banatu du koronabirusak. Lombardia eta beste hamalau probintzia isolatu ditu Italiako Gobernuak koronabirusaren hedapena geldiarazteko helburuz. Hamasei milioi pertsona baino gehiagok dute herrialdeko iparraldetik irtetzeko debekua. 366 hildako eta 7.000 kutsatutik gora daude Italian momentu honetan, Txinako mugetatik kanpo koronabirusa gehien hedatu den herrialdean.

Azkenik, ekonomian nabarmen ari da eragiten hau guztia eta munduko burtsetan galera handiak nozitu dituzte, koronabirusarengatik.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Printzesa hiria

ARITZ GALARRAGA

Marina Garcesekin behin bakarrik egon naiz. Egon, diot, ze ikusi, gurutzatu, are agurtu, egon ginen aldi hartatik, maiz xamar egin izan dut, ia bizilagunak baikara, edo baikinen, jada ezin jakin. Interbiu bat egitea onartu zidan, zer eta, beste pertsona bat nintzela uste izan zuelako, AS hain zuzen, nire lagun minenetako baten neska-laguna, era berean Garcesen lagun baten laguna dena. Nahasmendua probestu genuen halere, azkar ibili ginen; ez da beti gertatzen. Antisistema gisa etiketatu duten filosofoak kokakola bat hartu zuen orduko hartan. Nik Vichy.

Bartzelonan bizi –oroi, bizilagunak ginen ia, edo gara, ezin jakin jada–, Zaragozako unibertsitatean egiten zuen lan garai hartan, egin zuen urte luzetan. Hor ez nintzen hain azkar ibili, ez nion galdetu etengabeko joan-etorri horiez, eskerrak aipatzen dituen *Ciutat Princesa* liburuan –biografia politiko moduko bat, bizitza baten gertakizunen zerrendatze hutsetik askoz harago doana; adibidez ez du esaten aitak Bartzelonako kanodromora eramaten zituela–. Aipatzen du ahizparen kasua, zeina urtez luzez bizi izan den Holandan. Eta konparatzen berearekin, etengabeko sartu-irtenean: "Badira hobeto itzultzea helburu duten joateko manerak; eta sekula bertan erabat egon gabe geratzekoak, nik denbora askoan egin bezala". Ihes egitea erraza baita. Erronka litzateke nola itzuli amore eman gabe.

Izan ere, zer da hiri bat? Garcesen hitzetan, heldu, iritsi, arribatzen direnen lekua da hiria, ezezagunen artean bizitza berriz hasteko. Gustuko dut hiri suerte hori, gustuko dut Garces eta konpainiak hiria pentsatzeko duten modu hori, berradiskidetzen naute hamalau urte luzez –eta ze luze batzuetan, oh mama– abaro izan dudan hiriarekin. Gogoan dut garai batean liburu bat oparitzen nuela, *Odio Barcelona*. Gaur egunean ez harritu *Ciutat Princesa*-ren ale batekin ikusten banauzue. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

"GURE ARROPAK GARBITZEAGATIK AMIANTOZ GAIXOTU DIRENEN AITORTZA EXIJITZEN DUGU"

CAF-EKO ENPRESA BATZORDEA

Amiantoaren ondorioz 50 langile hil dira CAF enpresan azken urteetan, baina gehiago direla dio enpresa batzordeak, esaterako zaintza lan aitortu gabea egiten zutenak: "Amiantoak emakume aurpegia ere badu". Askotan, familiak "epai prozesu amaigabe eta sufrimendu luzera kondenatzen dituzte". Hiru emakume nabarmendu dituzte: Vicenta Burguete, Puri Muñoz eta Maria Dolores Sabino. Horietako bi hilda daude, euren senidearen buzoa garbitzen aritzeagatik. Besteak beste, CAFi eskatu diote emakume horien kasuak laneko gaixotasuntzat hartzeko. **2020/03/06**

EKONOMIAREN TALAIAN

Mateo efektua

JUAN MARI ARREGI

Kapitalismoaren "birfundazioaz" liburu berriak sortzen diren bitartean, kapitalismo horren kudeatzaileek 2019 urteak eman diena azaldu digute. Irabazi handiak izan dituzte enpresentzat eta, batez ere, zuzendaritzako buruentzat; irabazi globalak murriztu badira ere, haiek jarraitu dute soldata eta osagarri eskandalagarriak poltsikoratzen.

Ibex espainiar indizeko 35 enpresa kotizatuek 507.822 milioi euroko salmentak izan dituzte eta 27.054 milioi irabazi, aurreko urtean baino %35,9 gutxiago. Enpresa horietako zuzendaritzako kideek 696 milioi euro jaso dituzte soldata eta osagarrien bidez, horietatik 323 milioi administrazio kontseilukoen poltsikora joan dira –iaz baino %7,75 gehiago– eta beste 372,7 milioi goi zuzendaritzakoenera. Madrilgo burtsako etengabeko merkatuko 79 enpresen irabaziak gehituz gero, 2019ko mozkin osoa –EAEko zenbait enpresa barne– 30.205 milioikoa da.

Enpresa handietako presidente batzuek kobratzen dutenaren adibide bi: 2019an, Iberdrolako Jose Ignacio Sánchez Galánek 10,43 milioi euro jaso zituen, eta Santander Taldeko Ana Botinek 9,95 milioi. Finantza-eskandalu hori handitzen ari den bitartean, gutxieneko soldata 950 eurokoa da, gutxieneko pentsioek ez dituzte 650 euro gainditzen, eta langabezia, prekarietatea eta gizarte-bazterketa areagotzen ari dira. Hori da sistema kapitalistak sortzen duena, "Mateo efektua" deritzona: "Gehien duenari, gehiago emango zaio, eta gutxien duenari, kendu egingo zaio, gehien duenari emateko".

Kapitalismoa birsortzea ez da sistema berri bat sortzea, baizik eta "merkatuko gehiegikeriak" ezabatzeko formula kosmetikoak bilatzea, bizirik iraun eta iraultza sozial erradikalenak saihesteko. Kapitalismoa beti izango da injustizia, desberdintasun eta bazterketa sozialaren sortzaile. ●

ANALISIA

BIZII

Trantsizio ekologikoak egon behar du kanpainan

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Zaldibargo zabortegia bi langile jan dituen munstro kutsakor bat baino askoz gehiago da. Zaldibargo zabortegia mundu bat da. Zaldibargo zabortegia hautu batzuen emaitza da. Bizitza zentroan eman beharrean, zaborra –hots, etenik gabeko kontsumoa– zentroan ematen duen eredua da. Sistema bat ez da ez lurretik loratzen, ez eta zerutik erortzen ere. Sistema bat erabakitzen da, gauzatzen da eta akuilatzen da. Eta botere politikoen lekua ez da ttipia horretan. Erabaki, gauzatze zein akuilatze horien berri jakiten ari gara poliki-poliki euskarazko komunikabide batzuek bideratu ikerketa kazetaritzari esker.

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak eginen dira apirilaren 5ean. Ipar Euskal Herriko herriko etxe eta elkargorakoak berriz martxoaren 15 eta 22an. Lapurdi, Behe Nafarroa zein Zuberoan bozkatzen dugunok zehazki badakigu zein hautagaik duen trantsizio ekologikorako konpromisoa hartu. Eta hori bezain garrantzitsua: badakigu zein hautagaik ez duen horren aldeko engaiamendua hartu. Gauzatu beharreko neurri batzuk dituzte hitzen gibelean. Besteak beste: "Hondakinen murrizketaren eta ekonomia zirkularraren alde egitea" eta "klima aldaketari aurre egiteko herri mailako plan bat" gauzatzea. Izenpetutakoa gauzatzen ez duena presionatzeko karta gehiago ukanen ditugu esku artean, eta nola ez izenpetu ez dutenak akuilatzeko ere. Herri presiorik gabe nekez bideratuko delako trantsizio ekologikoa –eta horretarako beharrezkoa den trantsizio ekonomikoa–. Bizi! talde ekologista dabil hautagaiak engaiamenduak hartzera bultzatze lanean.

Interesgarria lirateke ikustea EAEko hautagaietan zeinek izenpetuko lukeen *Metamorfosi ekologikoaren aldeko ituna* –eta zeinek ez lukeen izenpetuko–. Dena dela, ez da misterio handi bat: zabortegiak eta erraustegiak trantsizio ekologikoaren antonimo dira. Interesgarria litzateke entzutea EAEko hautagaitza bakoitzak ere zerekin mamitzen duen trantsizio ekologikoaren oskolaren barnekoa. Gaiak egon behar du plaza publikoan. Gaia egon behar da kanpainan. Oihana gordetzen duen zuhaitza delako Zaldibarrekoa. Gero, bakoitzak hauta dezala, arazoan gelditu nahi duen ala aterabideen bidea hartu nahi duen. ●

ANE IRAZABAL

KRISI HUMANITARIOA GREZIAKO MUGAN

GREZIA. Otsailaren 27an Siriako Armadak 30etik gora soldatu turkiar hil zituen Idliben, eta erasoaren ondotik Turkiak mugak zabaldu zizkien errefuxiatuei, Europari presio egiteko. Ordutik, egoera asko belztu da Turkia eta Grezia arteko mugan. Milaka dira bi mugen artean harrapatuta geratu direnak, eta Greziako Poliziak indarkeriaz oztopatzen die bidea. Hori gutxi balitz, errefuxiatuei eraso egiten die eskuin muturreko jendeak. Migratzaile batzuek hondartzan kanpatu behar izan dute (argazkian), Moriako kanpalekua gainezka baitago eta faxistek irlako beste puntuetara igarobideak blokatzen dituzte.

INGURUMENA

100.000

metro koadroko azaleran lizentziarik gabe zuhaitzak moztu eta lurra txikitu zuen iaz Higertoki enpresak, Jaizkibel-Aiako Harria korridorean egin nahi duen mega-outleterako. Hondarribiko Abotsanitz alderdiak azaleratu zuen arau-haustea eta orain isuna jasoko du enpresak, baina isunik txikiena ezarri dio Hondarribiko alkateak (EAJ): 500 euro baino ez.

Amiantoa aurkitu dute Zaldibarren aritu ziren zenbait suhiltzaileren jantzietan

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

KEZKATUTA

"Oso haserre eta kezkatuta gaude". Hala adierazi digu bere izena sekretupean gordetzeko eskatu duen suhiltzaileak. Otsailaren 6an Verter Recycling enpresak kudeatzen duen zabortegira bidali zuten. Sustantzia toxikoei aurre egiteko ongi prestatu gabe aritu zirela dio, eta orain gutxi jakin dutela, bertan izan ziren Bizkaiko hiru suhiltzaileren jantzietan amianto arrastoak aurkitu dituztela.

AMIANTOA... ETA ZER GEHIAGO?

"Ezin duzu imajinatu ze kaka pila zegoen han. Panorama beldurgarria zen, eta kiratsa izugarria. Zabortegi horretan ez dago amiantoa bakarrik, han hondakin arriskutsu piloa dago", dio.

60 GUZTIRA

"Maskarila ziztrinik ere ez genuen! Izugarrizko esfortzu fisikoa egin genuen, ahotik edozer sartu zitzaigun". Lau bat orduz egon zen zabortegian elkarrizketatu dugun suhiltzailea. Bizkaitik Derioko, Iurretako, Basauriko eta Artazako suhiltzaileak joan ziren, Bizkaiko Aldundiak bidalita. Gipuzkoako Aldundiak ere bidali zituen lehen txandan Eibar eta Oñatitik. Guztira 60 bat lagun aritu ziren lehen egun hartan ongi prestatu gabe.

IRPH. Europako Auzitegiak ebatsi du Hipoteka Maileguen Erreferentzia Indizeen gehiegikeria kasuak Espainiako auzitegiek epaitu behar dituztela. Kasuak banaka aztertu beharko dira, kaltetuak hipoteken klausulak ulertzeko gai ziren ala ez aztertzeko.

PENTSIO ERREFORMA. Haserrea areagotu du erreforma Frantziako Legebiltzarraren bozketarik gabe pasarazteak. Konstituzioko 49.3 artikulua aktibatzeko erabakia hartu du Edouard Philippe Frantziako lehen ministroak, modu horretan Legebiltzarreko eztabaidak eta bozketa saihestuz.

ARRAZAKERIA FUTBOLEAN. Iñaki Williams Bilboko Athleticeko aurrelariak adierazi du irain arrazistak berriro jasoz gero, jokalari guztiek zelaitik alde egingo dutela, partidua bertan behera utzita. "Eta berdin zaigu partida galdutzat ematen badigute ere, arrazakeriaren aurkako ostikada izango litzatekeelako".

COVID-19 IZURRIAK TXINA PARALIZATU ETA MUNDUA LURRALDE EZEZAGUNERA ERAMAN DU

"Koronabirusak mundua lurralde ezezagun batera eraman du" esan zuen Munduko Osasun Erakundearen zuzendari nagusiak Covid-19ak zuzenean eragindako heriotzek 3.000ko langa gainditu zutenean. Planetako agintariak alor bat baino gehiagotan aurkitu dira bide-orri garbirik gabe izurria lehertu zenetik. 2008ko finantz-ekaitzak ekarritako krisi ekonomikoaren neurriko beste baten aurrean ote gauden zalantza piztu du.

PELLO ZUBIRIA KAMINO

Tedros Adhanom Ghebreyesus Munduko Osasun Erakundearen buruak martxo hasieran Covid-19aren arriskuez ohartarazten ari zela, esan zuen: "Estigma arriskutsuagoa da birusa bera baino". Izurria zure gain eramateagatik edo zurekin eraman ote dezakezulako susmagarria izateagatik edo ustez izurria ekarri duen giza taldekoa izateagatik ingurukoek ezarri dizuten marka, aparte edukitzea komeni den etsaiaren arrastoa, horra estigma.

Ukrainan otsailaren 19an Novi Sanzhary herrixkako jendeek harrika hartu zuten Txinatik etxeratu ostean berrogeialdirako 70 jende zekartzan autobusa, ordu luzez aritu behar izan zuen poliziak egurra partitzen, azkenean gaixo susmagarriok beren hotelean sartzea lortu arte.

PAGABURUAK ETA SORGIN-EHIZA

The Guardian-eko kazetariak bildu zuen Novi Sanzharyko jendeen haserrea: "Ez al zeukaten hau baino leku egokiagorik herritarrak arriskuan jarri barik isolatzeko?" zioen batek. Beste batek iradoki zuen horrelako jendeak Txernobyl inguruan eramatea, edo Kieveko legebiltzarrera, erabakia hartu zuten politikarien tartera. Batek Volodymyr Zelensky lehendakariari eskatzen zion susmagarriak etxean hartzea: "Zuk hamar hartzen badituzu, nik etxean bi hartuko ditut".

Koronabirusak ez ditu jendeak soilik gaixotzen, gizartearen jendetasuna ere gaixotu dezake, Italiatik Ugo Bardi klima eta krisietan adituak ohartarazi duenez. Bardik *Cassandra's Legacy* (Cassandraren herentzia) blogean alderatu ditu Italian Covid-19 zabaltzearekin ikusi diren zenbait erreakzio XVII. mendean Milanen izurri beltzarekin ikusi zen sorgin ehizarekin. 1629-1631 urteetan izurriteak jota Milango biztanleen erdia hil zenean, jendeak etsipenaren atzaparretan erorita sinetsi zuen errudunak izendatzen zituen zurrumurrua: pertsona gaizto batzuk ari zirela izurria zabaltzen koipe edo ukendu pozoitu batez igurtziz herriko ate, maratila, helduleku eta abarrak, haiek ukitzen zituzten guztiak heriotzara kondenatuz.

Paranoia haren zorabioan, zenbait ustezko errudun karriketan lintxatu zituzten. Beste batzuk salatu zituzten, torturatu eta bortxatu ustezko krimenak aitortzera. Ondoren iritsiko ziren epaiketak, funtsean ez zirenak sorgin-ehizak baizik. Horietako batzuk exekutatu zituzten plazan harrizko zutabe bat altxatu zuten zigorraren oroigarri, "Lotsaizunaren Zutabea".

"Gauza batzuk beti errepikatu izan dira –dio Bardik–, internet edo ezta hedabide inprimaturik egon aurretik ere. Baina gaur egun webak abiada sinestezinean zabaldu ditzazke gorrotoa eta *fake news*-ak. Italiara duela egun gutxi iritsi da Covid-19 izurritea eta dagoeneko hedabide sozialak ari dira gainez egiten gorroto uhin batean, gaurko untore ('igurtzitzaile' esango genuke euskaraz) berriak errudun jarriz –berdeak, gobernua, komunistak, etorkinak, afrikarrak eta oro har 'buonisti' edo jende onberak– ez omen

ITALIAN LONBARDIAKO HAINBAT UDALERRITAN JENDEARI ESKATU ZAIO AHAL DUEN HEINEAN ETXEAN GERATZEA.

dutelako ezer egiten pandemiaren zabaltzeari aurre egiteko".

Mundu osoan zehar diaspora txinatarra markatzea izan bada erreakzio ohiko bat, eritasun berria azaldu den Txinan bertan ere paranoia eta histeria hedatu dira. Batzuetan agintariek birusa hesitzeko ezarritako debeku eta arauek berek bultzatuta gainera. Gaixotu itxurako jendeen kontrako erreakzioetatik harago, berrogeialdi eta isolatze aginduak zorrotz segitu nahian herri eta herrixka askotan errepideak eta trafikoa barrikadaz etetera iritsi dira. Herrialdearen eskualde zabalak paralizatzeraino.

MUNDUKO EKONOMIA *SHOCK* EGOERAN

Txinaren paralisiak munduan eragin dezake beste alboko kalte bat inork joan den urtatsez imajinatuko ez zukeena: sakonera handiko krisi ekonomiko bat, oraindik 2008ko *shock*-aren ondorioak gainditu gabeak direnean. Neoliberalen eguneroko ogietako bat den *The Economist*-ek otsail erditsutan titulatu zuenez, "Koronabirusak munduko ekonomia desorganizatu du". Aldizkariak azaldu duenez, gaur Mendebaldeko multinazional handiek menpekotasun askoz handiagoa daukate Txinako fabrikekiko, 2003an SRAS birusaren piztualdia suertatu zenean baino; segurtasunezko alternatibarik gabe aurkitu ditu eta "epidemia honek eten lezake multinazionalen eta Txinaren arteko maitasun ipuina".

Gail Tverberg ekonomialari eta arriskuen eta ziurgabetasunen neurketan adituak, *Our Finite World* (Gure mundu mugatua) blogeko "Txinaren hiru hilabeteko geldialdiak mundu osoko ekonomia nola kaltetu dezakeen" artikuluan azaldu duenez, munduko ekonomia oso ezberdin bihurtu daiteke Covid-19aren eraginez.

Lau puntuotan zehazten ditu berehalako ondorioak. Bat, lehengaien prezioek behera egin dezakete Txinaren eskaria ahultzeagatik. Zehazki petrolioa gogor merketu daiteke, beharbada upeleko 30 edo 35 dolar artio, Txinaren eraginaz gain, bidai luzeak asko urrituko direlako, Covid-19az kutsatzearen beldurrez. Bi, Mendebaldeko enpresa handi askok, Apple berak esaterako, haien hornidura katea eteten ikusiko dute. Ez dute jakingo noiz zerbitzatu ahalko dituzten produktuak, ezta egin ahal izango duten ere. Hiru, zorrengatiko kiebrak ugaritu daitezke, batik bat Txinan baina mundu osora zabalduz. Lau, munduko ekonomia atzeraldian sartu daiteke, hartatik berriro ateratzeko aukera errazik gabe.

Birus berriak ez dauka ezta munduko beste herrialdeak zuzenean harrapatu beharrik ere arazoa sortzeko. AEBak, Europa eta munduko gainerako herrialdeak Txinak funtzionatzen jarraitzearen oso mende daude. Munduko ekonomiak arrautza gehiegi jarri ditu saski bakar batean eta orain saskia ez da lanean ari espero bezala.

Gaur egun Txinak ekoizten duenez munduko merkatuek behar duten edozer, munduko gainerako guztiak bat-batean ohartuko dira hornidura kate luzeok ez

SUN TXUNLAN TXINAKO OSASUN MINISTRORDEA WUHANEN MILITARREZ INGURATUA, EPIDEMIAREN HASIERAN.

ERROMAKO SAN PAOLO ESTADIOA DESINFEKTATZEN MARTXOAREN 4AN.

zirela hain ideia ona. Arrapalada handia hasiko da hornidura kateetan huts egindako osagaien lekua hartzeko, baina produktu asko ez dira hain eskuragarri suertatuko aurrerantzean. "Laster –dio Tverbergek– ohartu beharko dugu zenbateraino geunden Txinaren mende edozer gauza eskuratzeko, oinetakoak bezala automobilak edo altzariak edo elektronika. Munduko karbono dioxido isurketak nabarmen jaitsiko dira Txinaren arazoengatik, baina horrekin batera iritsiko diren arazoak gainditu ahal izango ote ditu munduko ekonomiak?".

Tverbergen analisiek baino oihartzun handiagoa izango dute, ziur, hark baino jarraitzaile-parrokia zabalagoa daukan Nouriel Roubini ekonomista izarrarenek, 2008ko krisitzarraz aurretik ohartarazten bakarretakoa izateagatik baita famatua. Roubinik *Der Spiegel* aldizkari alemanari esan dio: "Krisi hau uholdea legez zabalduko da eta hondamendi izaten amaituko du".

KORONABIRUSA POLITIKOA ERE BADA

Roubiniren kalkuluetan epidemiaren eraginak arras murriztuko dio hazkunde tasa Txinari, urte osoan gehienez ere %4ra iritsiz, menturaz %2,5 baizik ez: birusaren aurretik 2020rako espero zuten %6ra iristeko, datozen bederatzi hilabeteetan %8 hazi beharko dute eta hori ezinezkoa da. "Txinarentzako %2,5 edo %4 esatea atzeraldia esatea da, eta honek mundu osoarentzako *shock*-a esan nahi du". Zenbaterainokoa? Roubiniren arabera munduko burtsek %30 edo %40 gal dezakete aurten, horregatik aholkatzen die inbertsiogileei: dirutan eduki zuen aurrezkiak edo bestela Alemaniako bonoak bezalako zor publikoetan sartu. Aurrezkiak dauzkatenentzako ari da, prefosta.

Ustez Hubei probintziako saguzarren edo pangolinen –edo granja industrialetako txerrien– birus xume bat zena mundu osoa astinduko duen pandemia bihurtzen baldin bada, osasun, gizatasun eta diru arazoekin batera arazo politikoak ere eragitera deituta dago. Txinan bertan, hasteko. Roubiniren iritzian, "pagaburu bat beharko du Txinako gobernuak". Horregatik aurreikusten du ez gerra aitortu eta erabateko bat baina bai borroka edo tirabirak gogortzea Pekingo gobernuak, izan Taiwan, Hong Kong edo baita Vietnamen ere, AEBen armadarekin ere tentsioa gogortzearekin batera.

Aseguruen alorrean arriskuak kalkulatzen espezialista den Gail Tverbergek bestelako lanjer batzuk ere ikusten ditu Txinarentzako: "Geldialdiak luze irauten badu, orduan oso posible da lider berri batek hartzea agintea Txinan, hori gutxienez. Eta ekonomia barruan aldaketa handiak gerta daitezke. Esate baterako, ekonomia berriro abian jartzeko gai diren Txinako probintziak saiatuko dira berriro martxan jartzen, gehiago kaltetutako probintziak atzean utzita. Horrela gertatuko balitz, Txinako gobernu batekin bakarrik ez, administrazio bat baino gehiagorekin negoziatu beharko litzateke aurrerantzean".

Eta AEBetan, izurrite hau ez ote da justu Donald Trumpek bigarrenez lehendakari izateko behar zuen bultzada? Alderantzizkoa uste du Nouriel Roubinik: "Trump saiatuko da krisiari etekina ateratzen, ziur. Baina dena aldatuko da koronabirusa AEBetan zabaltzen denean. Ezin diozu horri hesirik eraiki. Begira, New Yorken bizi naiz eta han birusa iritsi aurretik ere jendea gutxitua zen jatetxeetan, zineetan edo antzokietan. Iristen baldin bada, orduan izorratuta gaude. Trump hilda dago, jar ezazu nire hitzetan".

COVID-19 IZENEKO MUNIZIOA

Eta ezinegon eta gerren eragilez gain, Covid-19a bera aurretik martxan dagoen gerra baten osagai baldin bada, zer? Hari horri oratu zaio zenbait aztertzaile, kontutan edukitzeko argudioak emanaz.

UKRAINAN NOVI SANZHARY HERRIAN BERROGEIALDIAN ATXIKITZEKO JENDEAK ZEKARTZAN AUTOBUSA ERASOTU ZUTEN LEKUKO HERRITARREK.

Raul Zibechi idazle urugaitarrak *Gara* egunkarian idatzi duenez, "pentsatu behar dugu epidemia gerra armatzat ari direla erabiltzen Txinaren kontra eta munduko herrien kontra, hedabideen bonbardaketa izugarri batekin, gripe gogor bat edukitze hutsagatik jende sail osoak hesituz salbuespenezko egoera gisako batean". Ezker latino-amerikarraren erreferenteetako bat den Zibechirentzako, birusaren larritasuna ukatu barik, neurriz gaineko erreakzioak eduki dituzte munduko hedabide nagusiek, eritasunaren ondorioak noraino iritsiko diren jakin gabe ere.

Zibechik –Covid-19aren jatorria inongo konspirazioetan kokatu barik– egoki nabarmentzen du nola hedabideok kasik oharkabean utzi dugun hilabeteotan askoz hilgarriagoa suertatu den 'denge' gaixotasuna, soilik Brasilen bi urtetan 786 jende hil dituena. Kazetariok zer pentsatua badaukagu gaixotasunen artean egiten dugun diskriminazioaz eta baita epidemia baten furia baretu ostean haren balantzerik egin gabe ahazteko dugun ohitura tamalgarriaz. Esate baterako, zer gertatu zen 2009an munduan zabaldu zen H1N1 gripe-birus harekin? Hilabete batzuetan zalaparta eragin ostean, hildakoen balantzeei jarraipenik ez genien egin eta horrela aurki daiteke orduan gaitzaz okupatu zen bat orain harrituta, 11 urte geroago jakitean Asiatik ez baina Ipar Amerikatik munduan barrena zabaldutako H1N1 hark hil zituela... 150.000 eta 500.000 jende artean.

Covid-19aren kasuan, dio Zibechik, Txinaren etsaiak saiatzen ari dira alde batetik, abagune hau baliatzen produkzio industrialaren atal osoak handik ateratzeko eta bestetik, Pekingo gobernua uzkaldu eta Xin Jinping agintetik kentzeko. Baina, gainera, munduko beste gizarteetan ere potentziek epidemia darabilte "ingeniaritza sozialeko laborategi bat bailitzan, azpiratutako jendeen erresilientzia bortxatuz beldurrezko kanpaina errukigabe batekin". ●

ATZERRIRA JOAN BEHARRIK GABE EKARRI DIDATE MUNDUA MIGRATZAILEEK

Boluntariotzan ezagutu dugu, migratzaileei etxebizitza bilatzeko lanean, besteak beste. Ahalegin horren atzean, familia historia jakin bat du Margak, gurasoen ibili zehatz bat, zainetan daraman gogo bat, gaurgero iloben odolean korri bizi-bizi dabilena, gizartearen gezurrak bistara ekartzen dizkiguna.

MIEL A. ELUSTONDO ZALDI ERO

"Gasteiztarra, betikoa", Gasteizen esan ohi denez. Alabaina, Santanderren (Espainia) jaioa...

Baina jaio eta hilabetera Gasteizen nintzen! Aitaren ibiliaren gorabeherak izan ziren horiek... Jose Ignazio Bajo nuen aita, familia erdi aberats bateko semea. Etxeko ardi galdua, nolabait esatearren. Bere senide guztiek ikasketak zituzten. Gure aitak, berriz, antzerkia zuen zaletasuna; itsua, gainera. Eta beti esaten dudana, bi pertsona ezagutu ditut ondo baino hobeto errezitatzen zutenak: bata zen Lola Flores, bestea gure aita. Gogoratzen naiz, ni neska koxkorra, aita errezitatzen eta ni negar malkotan. Ikaragarria zen errezitatzen. 15 urterekin, etxetik alde egin eta Madrilera joan zen, antzerkia egitera. Eta hantxe ibili zen, batzuekin eta besteekin, komediak-eta egiten. Ezin bizian, baina egin nahi zuena egiten, gustatzen zitzaiona egiten: antzerkia. Madrilera aita, eta hura eskandalua etxean! Okerrena, amama; haserre handiena, berak. Eta harexen izena daramat: Margarita!

Gasteiza itzuli zen aita, noizbait.

Bai. 20 urtetsu zituela, lagun baten ezkontzara Gasteiza etorri, ama ezagutu –arkakusoak baino behartsuagoa ama, Orbea fabrikan lanean ari zena ordurako–, eta flashak jo zituen: maitemindu ziren, eta ezkondu! Etxean inor ez zen gure gurasoen ezkontzara joan. Hala ere, aitaitak esan omen zion gure aitari: "Zentzatzen bahaiz, mandatu-mutil lana inguratuko diat Santanderren, Hispano-americano banketxean". Aitaita ondo bizi zen, bazuen dirurik, merkataritza irakasle, harremanak ere bai banketxe hartan... Aitak baietz, onartu egin zion. Eta hantxe jaio nintzen ni Santanderren, zazpiki.

Jaio eta hilabetera, Gasteizen zinen.

Bai, bada! Gasteiz da nire ilusio handia. Euskalduna naiz gauza guztien gainetik. Nire frustrazio handiena, berriz, euskaraz behar bezala hitz egiteko gauza ez izatea. Errioxakoa nuen ama, aita gas-

GASTEIZ

"Oraindik orain, migratzaile gazte batekin ibili naiz Gasteizko parte zaharrean, harentzako aterpe edo logela bila. Ikusi nuena ez esatekoa da. Jendea pilatuta, labezomorroak... Logelarik eskaini zigutenean, berriz, ez kontraturik ez erroldarik ziguten eskaintzen, eta Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzekotan, beharrezkoak dituzu horiek. Orduantxe ikusi nuen oro ez dela urre, ez ontasun, ez elkartasun. Migratzaileen artean ere eguneroko ogia dituzu mafiak".

"BIZILAGUN" ASTERO

"CEARek 'Bizilagun' antolatu ohi du, urtean behin egiten den bazkaria, hango eta hemengoak bilduz. Guk lursail bat dugu Forondan, eta haraxe jotzen dugu asteburuetan. Dozena bat lagun baino gehiago biltzen gara, batzuk Eritreakoak, besteak pakistandarrak... Ez dira eskutsik etortzeko gauza. Nork bere estiloko jana ekarri ohi du. Diferente jaten dugu beti! Janariaren bidez lantzen dugu inklusioa. Urtean behin ez ezik, astero dugu 'Bizilagun' gurean. Irekiak ditugu ateak".

Azken hitza

BOLUNTARIO

"Orduz lehen jubilatu nintzen eta, orain, boluntariotzan buru-belarri sartuta nago. Gazte ikusten dut neure burua, sasoiko, halako eta halako proiektuetan laguntzeko gauza. Sare askorekin kolaboratzen dut, baina Arteale Fundazioan besterik ez dut boluntario izena emanda".

teiztarra, baina ez zen euskalduna. Sozialismoaren aldeko kristauak taldean sartu zen eta, gero, Jose Angel Cuerdarekin batera ibili zen EAJn. Hamalau urte egin zituen Madrileko senatuan. Cuerda, gure aita... inork ez zuen zain abertzalerik hemen. Orain, berriz, inor baino abertzaleago dira denak. Zain abertzalerik ez zutela esan dut, baina izpiren bat edo zer edo zer bazuten. Esaterako, urtsulatarrak ikastetxean sartu ninduten ni, etxe ondoko eskolara. Behin, kantu eder bat ikasi nuela esanez sartu nintzen etxera. Cara al Sol zen. Kantatzen hasi eta: "Hori ez da etxe honetan kantatzen!", aitak. Baina etxe ondoan genituen urtsulatarrak, eta haraxe ni! Bestalde, nik euskaraz ikas nezan gogotik saiatu zen gure aita, baina beti bazen tartean endredoren bat, eta ezin!

Euskaraz ez ikasia duzu zulatzen zaituen arantza.

Arantza horixe! Saiatu naiz, gogotik, baina ez dut hitz egiterik lortu. Gaitz erdi, euskaldun eta militante ditut seme-alaba guztiok, eta nik lortu ez nuena lortu du nire suhi Senegalekoak ere, eta harro nago! Euskalduna suhia, eta euskaldunak iloba senegaldarrak ere! Euskara dute lehen hizkuntza. Hizkuntz gimnastika bikaina egina dute. Ni, aldiz, makurra naiz hizkuntzetan. Frantsesez ere, ulertu bai, irakurri ere bai, baina hizketan hasi, eta motz!

> ***'Migratzaile horiek gauzak guri kentzera datoz'. Hori dioenak ez du baloratzen kanpotik datozenek irakasten digutena"***

Migratzaile eta errefuxiatuak laguntzen ezagutu zaitugu, boluntario.

Gurean hurkoari edota auzoari laguntzea ez da gauza berria. Horixe erakutsi zidaten etxean. Orain, berriz, kontra egiten dit amak. Ez du ulertzen ni, erretiratu eta gero, zeregin horietan ibiltzea: "Interes gutxiko jarduerak" esaten die berak. Nik, aldiz, bidea beraiek erakutsi zidatela esaten diot. Aitak jendeari laguntzeko borondate handia zuen, nahiz sasoi hartan ez zegoen oraingo egunean bezainbat migratzaile. Gogoan dut, esate baterako, egun batean antzerki konpainia bateko kideak etorri zirela gure etxera. Goian zerua, behean lurra, besterik ez zeukaten. Aitak esan zigun etxean hartuko genituela egun batzuetan, baina bi urte ere eman zituzten gurekin: bi haur ere ekarri zituzten mundura gure etxean!

Hortik zure boluntariotza.

Bai, nonbait. Gurean bost ginen senideok, baina etxean jende gehiago zegoen beti. Amak familia handia zuen, Errioxakoa zen, esan dizut, eta aitak handik Gasteiza ekarri zuen amaren familia osoa. Lehenengo, etxean hartu genituen, eta, gero, Errekaleorren jarri ziren. "Mundu Berria" izena zuen auzoak; apaiz baten asmakizuna izan zen Errekaleor. Askotan esaten nion amari: "Autobusa hartu eta Mundura noa, amama ikustera". Amama, amaren aldekoa, errioxarra, harako Mundu Berri hartan Errekaleorren. Aitaren aldeko amama, aldiz, Posta kalean bizi zen, atiko zoragarrian. Kontraste horien ondorio eta emaitza nauzu, hein bateko akrata, nahas-mahas bat. Hargatik ez naute ulertzen! Inori laguntzeko gogoak eraman ninduen Zuzenbidea ikastera. Idealizatua nuen lanbidea, penalista izan nahi nuen, jendeari laguntzeko, oroz gain. Intsumisioaz hizketan hasi zirenean ere, esate baterako, han ginen senargaia eta biok. Gasteizen mugimenduarekin bat egiten lehenetakoak izan ginen.

Nola egin zenuten bat intsumisioarekin?

Bilbon ikasten ari ginela, batzar bat egin zen. Hara joan, batzuek eta besteek esan zituztenak aditu, eta nire senargaiak baietz, intsumisioari lotuko zitzaiola, mugimendu harekin bat egingo zuela. Espainiako armadaren deia jaso eta bere burua intsumiso aurkeztera joan zenean, esaterako, hantxe abiatu zen, beldurrak airean, artean hura zer izango zen inork ez zekien-eta. 1980a zen urtea [urtarrilak 10]. Etxetik irten, eta, Ramiro Maeztu kalean, Lovaina plazan, bere ondo-ondoan, ETAko batek Velasco komandantea hil zuen [Jesús Velasco Zuazola, Arabako miñoigo burua]. Nire senargaiari buruan sartu zitzaion tiro zaparradaren hotsa. Hori, eta mutilaren

orroa, “Gora ETA militarra!”. Gero, haren ihesa. Nire senargaiak bertatik bertara ikusi zuen hildakoa. “Nik ez dut horrelakorik nahi!”, esan zion bere buruari. Gobernu zibilera joan eta intsumisioa aurkeztu zuenean, “Zergatik ez duzu soldadu izan nahi?”, galdetu zioten. Eta mutilaren erantzuna: “Inoiz ez dudalako armarik hartuko”. “Zoaz hemendik!”, esan zioten. Eta harrezkero ez zuen berririk izan, ez hots egin zioten, ez ezer. Hilketa hark betiko markatu zuen.

Latza...

Eta hau eta hura, beti saiatu gara laguntzen eta lanean, era batera zein bestera, nahiz eta ez jardun erakunde baten barruan. Abokatu kolegioan lan egin nuen, eta behin eta berriz eta askotan heltzen zitzaizkidan istorio-historiak. Ezta imana izanda ere! Etortzen zen bat, eta halako gertatu garratz bat kontatzen zidan. Laster erabakitzen nuen hark ofizioko abokatua behar zuela. Hasten ginen hizketan, hartzen genuen kafe bat, enpatizatzen genuen, bat egiten genuen eta sartua nintzen haren bizian; hein batean, bederen. Eta, horrela, bata bestearen atzetik etortzen zitzaizkidan kasuak! Nik uste aitaren zainetatik datorkidala lagundu nahi hori. Ez niri bakarrik, ordea: ni boluntariotzan ari naiz, eta nire bi alaba ere bai. Haiek CEARen, hala ere.

Errefuxiatuari laguntzeko Espainiako batzordea, CEAR.

Bai, bada! Eta etxera jendea ekartzen ari dira beti. “Ama, familia bat etorri da halako lekutik. Axola zaizu etxera bazkaltzera ekartzen baditugu?”. Beti ari dira horretan, eta ontzat hartu izan dugu beti jarrera hori, modurik naturalenean.

Margarita Bajo Lopez

SANTANTER, 1957

Margarita Bajo Lopez (Santander, Espainia, 1957). Erbestean jaioagatik ere, txistua baino azkarrago zen Gasteizen. Ramon Bajo Ibañez (Gasteiz, 1836–Iruñea, 1915) pedagogo argiaren biloba, Jose Ignazio Bajo Fanlo arabar senatariaren alaba. Hurkoari laguntzeko tirria josi zioten etxean, gurasoen ibili eta historia zaila bitarte. Zuzenbidea ikasi zuen, babesgabeak helburu, baina ez zuen abokatu lanik egin luzaro, haurrak bata bestearen ondoren etorri baitzitzaizkion. Justizia Administrazioan jardun zuen lanean, jendearen zerbitzuko lehen, boluntariotzan orain, premian daudenei laguntzen beti: migratzaile eta errefuxiatuei eta, oroz gain, emakumezkoei.

Bai gurean, bai gure gurasoen etxean ere. Eta horrelaxe egin dut bidea: lehenengo, familia bat ezagutu; haien bidez, beste bat; haien bitartez, hirugarrena... bukaerarik gabeko katean. Inoiz inorekin kafe bat hartu eta bihotza betean hitz eginez gero, zaila da aterik ixtea, pertsona hura ahaztea, ezertan ez laguntzea. Barruak ez dit inor bazterrean uztea agintzen, are gutxiago emakumea baldin bada. Egia esan, errefuxiatuetan, harreman gehiago ditut emakumezkoen artean. Zuzenbidea ikasi nuen, baina iruditzen zait distira intelektualik ez dudala. Aldiz, jendearekiko harremanetan badut abileziarik. Eguneroko lan txikia gustatzen zait.

Etxean etxekoak hartu zenituzten gurasoenean, CEARen lanean bi alaba. Zu zeu, munduan batekoak eta bestekoak laguntzen, ezusteak gorabehera.

Kar, kar... Bai, jakinaren gainean ari zara. Behin, goizeko ordu batean, alabak morroi bat ikusi zuen etxeko bebarruan, etzanda. Etxera sartu eta horixe lehenengo gauza: "Morroi bat etzanda dago hor, bebarruan". Jaitsi ginen, eta gure etxera sartu genuen. Gero, abentura txiki bat izan genuen morroi harekin, baina hori besterik da. Esan nahi dut, premian dagoenari lagundu, ahal den guztietan. Migratzaileei buruzko diskurtso gaizto hori! "Migratzaile horiek guri kentzera datoz". Hori dioenak ez du baloratzen kanpotik datozenek irakasten digutena. "Ezberdinak" jakituria ekarriko dizu. Ikasketa. Badakit askok bestela esaten duela, baina haiengandik ikasten dudanak balio handia du niretzat.

Zer ikasi duzu, adibidez?

Gauza asko. Esate baterako, inor ez epaitzen. Ez ditugu ezagutzen, ez dakigu zertan diren beren ohiturak, beren legeak... Ez gaude inor epaitzeko moduan. Ni ez, behintzat. Ezberdinak omen dira. Zertan dira ezberdin? Hemendik ordu erdira edo hiru ordu laurdenera jaio direla, horixe da ezberdintasun bakarra. Haiengandik ikasi dudana... Esate baterako, adinekoak errespetatzen. Harrituta nago ze errespetu dioten adinekoari. Senegalera joan nintzen lehenbiziko aldian jabetu nintzen horretaz. Arreta eman zidan. Ni neu adineko ikusten ninduten, eta sekulako errespetua erakutsi zidaten. Adinekoa autoritatea da han, hemen ez bezala. Gauza horiek ikusi eta nire onetik ateratzen nau gezurrak!

Gezurrak? Zertaz ari zara, zehatz?

Diskurtso ustel horretaz, gezur horretaz: kanpotik etorri den jendea lapurretan ari zaigula, gure lepotik gizentzen ari direla, anbulatorioak betetzen dizkigutela... Gezur hutsa da, gezur eta diskurtso interesatua. Kanpokoek, migratzaile diren horiek, aberastasuna dakarkigute, eta, gainera, gaztetasuna. Bestalde, niri, eta askori, mundua ekarri digute migratzaileek. Esaterako, oso bidaiari txikia naiz. Suedian izana naiz, lagun bat tarteko. Senegalen, alabarekin. Argentinan, senar albaitariarekin, behi afera batzuen aldera. Bidaiatzean, helburu jakin bat ibili dut beti. Aldiz, nire lagun asko, bidaiariak omen, joaten dira, egiten dute bidaia handi bat, eta inor ezagutu ez dutela itzultzen zaizkit! Postalak osatzen dituzte, besterik ez. Nik, aldiz, Fidelen [Castro] ondoan borroka egindako bat ezagutu nuen Gasteizen bertan. Hau, hori eta hura kontatu zizkigun, baita zergatik hil beharko zuen erbestean ere. Ez naiz atzerrira askorik joan, baina nik esango nuke atzerrira joan beharrik gabe ekarri didatela mundua migratzaileek. Aberastasun handia da hori, diruz ordaintzerik ez dagoena. ●

Estatua, estatusa, estatutua

KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Komunitate baten egoera politikoa identifikatzeko hiru kontzeptu dira: estatua, estatusa eta estatutua. Bada hiru horien artean gradazioa. Esan dezagun estatua dela, giza-komunitateetan, autogobernuaren goren gradua, gizatalde propioa eta honen baliabideak bere kabuz, kanpokoen esku-hartzerik gabe, baliatzeko ahalmena ematen duena. Horregatik, hain zuzen ere, estatu propioa, beregaina, independentea nahi izaten dute giza-komunitate autodefinituek, nortasun propioaren jabe errekonozitu izan eta kolektibitate propioa modu egokian antolatzeko ahalmen nahikoa eskaintzen diena.

Estatu propioa lortzea ez da, nolanahi ere, erraza gertatzen sarri askotan, batez ere jadanik estatu diren komunitate handiago eta indartsuagoen itzalpean aurkitzen diren giza-komunitateentzat. Halakoetan ez da, agian, beste biderik ikusten estatus berezia lortzen ahalegintzea baino. Estatu gradutik estatus gradura bada, beraz, de-gradazio bat, gradu-jaitsiera.

Horren adibide argia eskaintzen du, nazioarteko politikan, Palestinak; estatu independentea aldarrikatu zuen 1988 urtean, eta urtea amaitu aurretik, nazioarteko komunitatean estatu ugarik onartu egin zuen estatu jaioberria; estatu ugarik bai, baina ez Israelek, palestinarrak azpiratuta mantentzen dituen estatu sionistak, hain zuzen ere. Horregatik, estatus apalagoa onartzera behartu zuten 1993. urtean, Nazio Agintе Palestinarra deitua.

> Bizitzaren arlo guztietan ari gara ikusten, azkenaldian, berezko aurrerabidearena aurreiritzi erratua dela, historiak ez duela berez aurrera egiten, ez bazaio zentzu horretan indar handiz bultzatzen

Nazio Batuen Erakundean ere, estatu independentetzat onartu ordez, estatus berezia eskaini zioten Palestinari, ez gainontzeko estatu independenteen mailakoa, maila apalagokoa baizik. Baina Palestinaren egoera ez zen estatus horretan ere egonkortu, hortik estatutu are degradatuagoa eskaintzen baitio gaur egun Israeleko estatu sionistak.

Goitik beherako bidean, beraz. Edonola ere, inor gutxik ukatzen dio gaurko munduan Palestinari estatu beregaina izateko legitimitatea eta are premia larria. Duen egoera tamalgarritik irten eta bere giza-komunitate propioa antolatu ahal izateko, estatu osoa, betea, independentea behar du Palestinak. Ez estatus, ez estatutu.

Mutatis mutandis, egoera desberdinak kontuan izanda ere, beste horrenbeste gertatzen zaigu euskal herritarroi, ene aburuz. Estatu propioa behar dugu, ez estatus, ez estatutu. Estatu beregaina, independentea, horixe behar du, gaur, Pirinioetako alde bietan aspalditik kantan eta dantzan dabilen herri honek, hori besterik egiteko ahalmenik onartu ez baitigute gaur arte, gainean jarri zaizkigun bi estatuek. Gaur, XXI. mendean, bada garaia gure elea hartu eta gure estatua izateko.

Agian norbaitek argudiatuko du estatu propioa lortzeko bidean, gradazioa behetik gora egin behar dugula, txikitik handira, estatututik estatusera eta azkenean estatu independentea izatera. Horrela argudiatzen duenak, historiaren berezko aurrerabidean edo progresioan sinesten du, beharbada. Tamalez, bizitzaren arlo guztietan ari gara ikusten, azkenaldian, berezko aurrerabidearena aurreiritzi erratua dela, historiak ez duela berez aurrera egiten, ez bazaio zentzu horretan indar handiz bultzatzen. Eta gu, bulkada hori emateko prest gaude? Horretarako, helburua, estatu independentea, erakargarri azaldu behar dugu, zehatz eta sinesgarri, komunitatearen aurrean; horren aldeko indar erraldoia bildu, eta abiatu. ●

Hau guztia horren latz, triste, arriskutsu eta mingarria ez balitz



ANTTON OLARIAGA

SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR

Oraingo artikulu hau lanari eskaini behar nion. Berreskurapen ekonomikoak gora egiten duen heinean, zelan galtzen diren abiadura berean langileon osasuna eta bizitza. Inoren ardura barik, inorentzat dirua egitera behartuta gauden momentutik, izaera lapurtu eta pertsonak baliabide (giza baliabide) bihurtzen gaituztenez gero. Beste tresna bat baino ez gara, erosi, erabili, apurtu eta bota egiten dena. Gero eta merkeago. Gero eta prekarioago.

Hau idazten ari naizen momentuan hamabost lagun hil dizkigute honezkero. Dizkigute, bai, ardura eta arduradun zehatzak badaudelako heriotza horien guztien atzean. Enpresarietatik baino harago doazen erantzule zuzenak, Zaldibarren agerian geratu den bezala. Hamabost langile –baliteke idazkia eskuetara heltzen zaizuenerako, gehiago izatea– eta istripuetan besterik ez, lan gaixotasunen kontagailua erraldoi bezain kontrolagaitza baita. Heriotzaren arrazoia ez delako, adibidez, "amianto" idazten, "pleurako mesotelioma" baino. Eta, era berean, hemendik urteetara, Bizkaiko txoko horretan, paperek ez dute ekarriko "kutsadura", bestelako gaixotasun eta afekzio batzuk baino. Nori eskatu kontuak orduan?

Hildako horiek ez dira aintzat hartzekoak, langileak edo herritar xumeak direnez gero. Zoru etiko horren altu eta aratz-garbia daukan gobernu honentzat garrantzitsuena ez da zer, baizik eta nor. Eta zergatietara sartuz gero, zail egiten zait diru gosea baino arrazoi zikinagorik begitantzea.

Auzoko tabernatik irten eta twitterreko tabernara salto egin zuten kritiken aurrean, isilunea. Herritarroi destaina. Esku beltzak eta balizko kanpainak, biktimismoaren karta jokatzeko. Gero, beste lan istripu guztiekin bezala egin eta ezbehar atalean sartu; norbait bentanatik bota eta norberak ez, baizik eta grabitateak hil duela esatea lakoa. Azkenik, txakurrak ez du txakurrik jaten, baina norbaitek ordaindu behar badu, adostuko dugu zelan egotzi zuei marroia auzitegietan, lagunok. Ez dira komunikazio arazoak, norbera ere erruduna dela dakienaren irtenbide tamalgarriak baino.

Autokritika eskatu zaio gobernuari. Labur gelditu dira, nire ustez. Krimenez ari gara, iragarritako heriotzez eta pozoindutako hainbat herritarri bizi urteak laburtzeaz. Enpresa horrek egin du egin duena, egiten utzi diotelako. Areago, erraztu egin diotelako, batza alai eta konplizean. Zakarrek diru asko eman dezakete, New Yorkeko gangsterrek ere ondo dakitenez. Han ere publiko-pribatu lankidetza sobera ezaguna da.

Autokritika norbaiti eskatzekotan, niri neuri, behintzat, ez zaizkit burutik aldentzen bere momentuan zaborren kudeaketa berriari kontra egin zioten bizilagun anonimo guztiak. Oraindik ikusten ditut, lohietako poltsak hortik zehar eskegita, protestaka, zergatik eta gauzak hobeto egin nahi zirelako. Bada, Zaldibarren gertatu dena da "defendatu" zenuten eredua, ez besterik. Nire herrian horri oso termino itsusiz deitu izan zaio betidanik. Nork bere hautu politikoak badauzka, baina nork bere burua ere izan beharko luke hausnartzeko eta interes ilunen defentsa itsuan ez jausteko.

Eurak, bien bitartean: "Tira aurrera! Ez kezkatu eta segi!". Inoiz ezer gertatu behar ez balitz bezala edo, edozer gertatzen zela ere, estali ahal izango balute legez. Harik eta zaborrak hainbesteko kaka azalarazten hasi eta gobernua inoiz bizi duen krisi zikinetako batean murgildu arte. Justizia poetikoaz berba egin genezake, hori guztia horren latz, triste, arriskutsu eta mingarria ez balitz. ●

Ekofaxismoaren alternatiba

DIEGO PALLÉS

Txernobyli buruzko telesailaren zenbait *meme* ikusi nituen Zaldibarko krisia zela-eta, orain dela aste batzuk. Umore beltza baino, kritika politikoa zen xedea. Gobernuaren jarrera, arduradunen ustelkeria, ezaxola zabortegiko eta larrialdi zerbitzuetako langileen osasunarekin, ingurune pozoitua eta, oro har, hasieratik ustela zen modelo baten kolapsoa: denak lar ezagunak ziren jende askorentzat. Iaz, pantailetan jende askok drama haren irudikapena larritasun handiz ikusten zuen bitartean, beharbada lasaitasun sentimendu bat ere sentitu zuen, gurean horrelako hondamendirik sor dezakeen sistema arrotza zaigulakoan.

Zer aldatu da 80ko hamarkadatik hona? Hango zein hemengo agintariek krisi ekologiko eta sozialetan sakontzeko errezetak jarraitzen dituzte zintzo-zintzo. Merkatuen eta eliteen mesedeko logikek oraindik menperatzen dituzte naturarekiko harremanak. Sistemak ekonomiaren eta kontsumoaren hazkunde mugagabea behar izaten jarraitzen du, eta horretarako, lehengaiak ahalik eta merkeen lortzeko beharra du (horrek, gehienetan, ahalik eta kutsakorren esan nahi izaten du).

Gero eta gehiago onartzen ari da, ordea, garapenaren ideologiak iraungitze data jartzen diola egungo zibilizazioari, ez dagoela hainbesteko zaborra eta kutsadura sortzen jarraitzerik, ez dagoela mineral eta erregairik hutsetik sortzerik. Baina premiazkoa da ikertzea zein ondorio politiko ere ekar diezaguke egungo egoerak. Krisi sozial eta ekologikoen aurrean modelo aldaketa sakonen bat proposatu ordez soluzio teknoutopiko edo egin ezinetan ari direnak ez dituzte soilik arazoa areagotuko eta indarrak xahutuko, jendearen etsipena eta bazterkeria ere sustatuko dituzte. Eta erreakzionarioak bazterkeriak sortuak direla onartzen badugu, arazo ekologiko eta sozialak izateaz gain, askatasun- eta duintasun-arazo larriak edukiko ditugu.

Edukiko? Dagoeneko ikusten ditugu jendearen etsipena hurkoaren aurkako gorrotoa sustatzeko bideratzen duten ideologiak indartzen. Krisi ekologikoei ez-ikusiarena egiten diote eskuin muturreko talde askok, baina gero eta gehiagok onartzen dute arazoa existitzen dela, eta autoritarismoa logika ekologista batean oinarritzen saiatzen ari dira.

Egungo agintarien jardun antisoziala eta antiekologikoaren ondorioz, ez da sen ona halabeharrez inposatuko. Alternatiba ekofaxistak ez du kolapsoa ekidingo, ez gaitu gizakion existentzia inoiz ez bezala kolokan jarri gaituen zerumugatik aldenduko. Baina bitartean nagusitu egin daiteke. ●

Argazkiez

CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Ez naiz argazki zalea. Tarteka sakelako telefonoa hustu egiten dut eta mezu eta elkarrizketekin batera argazkiak ezabatzen ditut. Nolanahi ere, badira bi memorian uzten ditudanak beti. Batean gure aita agertzen da, bere tailerrean, Jose Ramón Anda eskultorea eta Alain Anda iloba arrimuan dituela. Eskultura baten inguruan daude, gure etxean denbora luzez egon zena konpontzeko. Argazki hura atera nuenean ez nintzen jabetzen zeinen arrasto sakona utziko zidan aitak, ironiarako dugun joera arriskutsua barne.

Beste argazkian Oskar Alegria zinegile eta bere aita Jesús Alegria daude. Veneziako Zinemaldian daude biak. Traje eta korbatarekin Jesús, amerikana eta ator zuriarekin Oskar. *Zumiriki* mustu zuten eguna zen. Gustatzen zait argazkia nabariak direlako aitaren harrotasuna eta semearen esker ona. Nor eta zer garen ez baitugu guk erabakitzen gehienetan, kontrakoa dirudien arren. Herentzian inguruari erreparatzeko modua jaso dugu aitengandik. Eta horrek egiten gaitu heterodoxo eta, batzuetan, ulergaitz. ●

Kontraesanetan

JOXERRA AIZPURUA
INDUSTRIA INGENIARIA

Lan egiten dudan enpresari maiz egokitu zaio Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia den SPRIn diru-laguntzak eskatzea, bai beretzat, baita bezeroentzat ere.

Eskaerak beti edo ia beti euskaraz aurkeztu izan ditugunez, gauza bitxi asko gertatu izan zaigu. Adibidez, duela hamar edo hamabost urte, SPRIko teknikariren batek adierazi zigun gure proiektuak itzulpen zerbitzura bidaltzen zituztela, eta horrek atzerapenak sortu zitzakeela ebazpenen garaian. Urteek aurrera egin ahala, SPRItik eskertu izan digute proiektuak euskaraz aurkeztu izana, baina baita aitortu ere, oso espezie arraro batekoak izaten segitzen dugula, hain zuzen horregatik.

Gero eta gehiago dira SPRIn euskara ulertzen duten teknikariak, eta beraz, gero eta normalagoa beharko luke proiektuak euskaraz aurkeztea, baina benetan espezie arraroa gara, nonbait.

Izan ere, aurten hainbat proiektutan laguntzaile gisa egokitu zaigu azaltzea eta hara non, nire harridurarako, proiektu liderrak enpresa euskaldunak izanik ere proiektuak gaztelaniaz idatzi diren. Enpresa liderrei adierazi izan diegu, proiektuak euskara ez den beste hizkuntzetan idaztean, ez garela ongi ari euskararen defentsan, baina horren aitorpena jaso ondoren hurrengorako utzi izan da euskararena.

Gero eta gehiago dira SPRIn euskara ulertzen duten teknikariak, eta beraz, gero eta normalagoa beharko luke proiektuak euskaraz aurkeztea, baina benetan espezie arraroa gara

Begien bistakoa da industriaren alorrean euskara ulertzen eta ezagutzen duten pertsonak gero eta gehiago direla, baina gauza "serioei" buruz hitz egin behar dugunean gaztelaniara, frantsesera edo ingelesera jotzen dugu berehala. Ildo horretan, lorpen gisa hartzen dut hainbat bilera teknikotan bakoitza nahi duen hizkuntzan aritzea, hau da, nirea euskaraz esaten dut eta beste batek gaztelaniaz erantzun, eta hari, hirugarren batek, berriro ere euskaraz, adibidez.

Egoera hori gaztelaniaz idatzi diren proiektuen segimendu bileretan pozarren bizi izan dudala aitortzen badut ere, euskararen normalizaziorako bidean urrats asko emateke daude oraindik. Laguntza deialdietan oso normala da puntutxo batzuk ematea ingurugiroaren errespetua, genero ikuspegia edo euskararen inguruko enpresa politika azaltzen dituzten idazkiengatik, baina horiek justifikatzeko idazten ditugun lerroak erdaraz baldin badaude, zertan ari gara?

Azken 20 urteotan enpresetan lagundutako euskara planak milaka onuradun izan ditu. Ezin uka horiek beharrezkoak direnik, baina orain norberaren euskararen kontzientzia astindu beharra dago. Ea aurten burutu behar den Euskaraldiak ohitura aldaketa eragiten laguntzen digun. ●

Atxega Jauregia

jatetxea

Aitzezarra,1

Zumartegi industrialdea

✆ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

“Hiltzen banaiz borrokan egingo dut, eta ez gerra zikinak balaz josita”

JESUS SANTRICH

FARC-EP-Bigarren Marquetaliako zuzendaritzako kidea

Bost urtez Habanako bake negoziazioetan Kolonbiako gerrillaren ordezkari izan ondoren, *Jesus Santrich* (Toluviejo, 1966) FARC-EP-Bigarren Marquetalia gerrilla berrien komandantea da, baita bake prozesuaren porrotaren isla ere.

Akordioa sinatu ondoren, Santrich urtebete baino gehiago egon zen kartzelan narkotrafikoa egotzita. Kolonbiako hainbat erakunde politikok eta sozialek "muntaia eskandalagarritzat" jo zuten prozesu judiziala. Azken helburua gerrillari eta parlamentari ohia AEBetara estraditatzea zen. Askatu ondoren, bizitza politikoa garatzeko "berme eskasak” zituela dio Santrichek eta horregatik Kolonbia ekialdeko mendietara jo zuen babes bila, Ivan Marquez eta *El Paisa* bezalako komandante garrantzitsu batzuekin batera, gerrilla borroka fase berri bat berrantolatzeko.

Jesus Santrich dagoen lekuraino heltzea lortu du *ARGIA*k Kolonbiako gerrilla berriaren zuzendaritzako kidearekin hitz egiteko.

IBAI TREBIÑO

FARCek berriz armak hartuko ditu. Bakearen ametsarenak egin du Kolonbian?

Nik Kolonbian bakea lortzeko aukeran sinesten dut oraindik ere, eta kolektibo farianoak ere bai. Hori lortzeko ari gara borrokan.

Sustrai historikoak dituen ikuskera da. Justizia soziala ardatz hartuta, adiskidetze nazionala lortzeko konfiantza osoa dugu FARC-EP-Bigarren Marquetalian. Bakea eskubide gorena da, eta, hori konkistatu ezean, ezinezkoa izango da pertsonen gainerako oinarrizko eskubideak erabat bermatzea.

Habanako Akordioak interesgarria zirudien. Areago, gerrillaren beraren gustukoa zen. Zer gertatu da?

Zehaztapena behar du. Habanako Akordioa, jatorrizkoa, bi ordezkaritzen artean negoziatu zuten, eta ez batek bakarrik. Hau da, Ivan Marquezek gidatutako bake ordezkaritzak eraldaketa politiko, ekonomiko eta sozialetan arreta jarri zuen kolonbiarren bizimodua hobetzeko. Horren adibidea da Nekazal Erreforma Integrala. Baina guztiz bestelakoa izan zen gatazkaren amaierari buruzko negoziazioa. Hirugarren puntuak jaso zuen "behin betiko aldebiko su-etena", hau da, alde batetik, gobernuaren eta FARC-EPren arteko armagabetze prozesua, eta, bestetik, FARC-EP bizitza zibilera itzultzea.

Alderdi horiek modu integralean eta aldi berean konpondu behar ziren, baina hirugarren puntu horretarako Batzorde Teknikoa sortu zuten, Kolonbiako armadako goi mailako militarrek eta FARCen ordezkari Carlos Antonio Lozadak osatuta.

Orduan armak uzteari buruzko puntua elkarrizketen testuinguru orokorretik atera zen eta modu konpartimentatuan maneiatu zuten, erabateko sekretismoarekin, trukeak eta iritziak eragotziz eta beste arloetan adosten ari ginen kontuekiko loturak hautsiz. Jatorrizko ordezkaritzan geundenok ez genuen aukerarik izan militarren eta gobernuaren ordezkaritzaren eta Lozada jaunaren taldearen artean gertatzen ari zena aztertzeko; haiek nahi izan zutena sinatu zuten, kontu horretan negoziatzeko aukerarik gabe geratu ginen. Armak emateko FARCen konpromisoa lotu zuenean, ordutik aurrera harroa eta intrantsigentea izan zen gobernuaren jarrera.

Zehazki, zer aldaketa izan du Habanan lortutako akordioak, azkenean Bogotan lortutakoarekin alderatuta?

Oso nekeza litzateke aldaketak eta urraketak xehatzen hastea. Egunero estatuak aldebakartasunez, adostutakoa aldatzen edo urratzen baitu, lehen bezalaxe gaur egun ere bai.

Pare bat kasu jarriko dizut. Funtsezkoena eta garrantzitsuena: bizitzeko eskubidea. Ez da bermatu. Ezkutaezinak dira lider sozialen edo bergizarteratu diren ehunka lagunen hilketak azken hiru urteetan. Bakerako Jurisdikzio Bereziaren arloan adostutakoari egin zaizkion aldaketak ere aipa ditzakegu, hasieratik etsaiaren zuzenbide penala inposatu zuten esparru horretan.

EL PAISA, IVAN MARQUEZ ETA JESUS SANTRICH

FARCeko buruzagi ohiak izan ziren aurpegirik ezagunenak armak berriro hartzeko erabakian. Gerrillara itzultzea iragarri zuten unea ilustratu du Juan Ruizek.

JUAN RUIZ

Tamalez, oro har, akordioaren inplementazioari dagokionez, gobernuak ez du sinatutakoa bete arlo askotan. Horren ondorioz, segurtasun juridikorik eza, segurtasun pertsonalik eza, segurtasun sozio-ekonomikorik eza eta krisi sakona sortu dira, eta, traizioaren bitartez, Bake Akordioa amildegitik behera bota du. Kolonbiako Gobernuak printzipio unibertsalak zapaldu ditu, hala nola *Pacta Sunt Servanda* [itunak behartzen du] eta fede onarena.

Akordioak sinatzeak eta haien inplementazioak haustura handia eragin du FARC-EPko komandante nagusietako batzuen artean, Ivan Marquez edo *Timochenko*, esaterako.

Gerrillako borrokalariek ez zuten parte hartu armak entregatzeko erabakian, ez baitzitzaien inoiz galdetu, ezta FARC-EPren Hamargarren Konferentzian ere. Konferentzia hura arrapastaka eman zuten amaitutzat akordioaren sakoneko arazoak eztabaidatu gabe.

Horretan *Timochenko*k erantzukizun handia dauka, baita Idazkaritzako eta Estatu Nagusi Zentraleko kideen zati batek ere, salbuespen bakan batzuk tarteko. Horiek, zoritxarrez, ez zuten FARC gidatzeko gaitasunik izan, ez gerra egoeran ezta bakerako ere.

Urtarrilean Rodrigo Londoño *Timochenko* hiltzen saiatu zaretela egotzi dizuete Kolonbiako polizia-iturriek eta FARC alderdiko iturri ofizialek.

Batzuetan pentsatzen dut adierazpen batzuk presaka egiten direla, *stablishment*aren kontra ez egiteko gogoak presionatuta. Neurri batean ezjakintasunaren emaitza dira. Hori da ustezko atentatuaren gainean dudan irizpidea; FARC-EP–Bigarren Marquetaliatik ez dago inolako asmorik La Rosako [FARC, Fuerza Alternativa Revolucionaria del Común alderdiaz ari da] edo beste edozein alderdi politikoren buruzagi edo militanteen aurka fisikoki eta moralki atentatuak egiteko. Hori eztabaidaezina da. Desadostasun ideologikoak izanez gero, maila ideologikoan jorratu behar ditugu eta ez bestela.

Bestalde, *Timochenko* hiltzen saiatzea leporatu dieten bi lagun horien kasua ikertzea mereziko luke. Zenbait inkoherentzia dago. Biak hil dituzte, eta argi dago ez direla inongo konfrontaziotan hil, bertsio ofizialak dioen bezala, baizik eta torturatu eta hil egin dituztela garai eta leku ezberdinetan.

G. IMAGES

Juan Manuel Santos eta Raul Castro orduko Kolonbiako eta Kubako presidenteak eta Rodrigo Londoño "Timochenko" Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileetako (FARC) buruzagi nagusia izandakoa. 2015eko irailaren 23an, Habanan (Kuba), bake akordioei buruzko bilera baten ostean.

Hitz egin dezagun 2018ko apirileko zure atxiloketaz, Nolakoa izan zen?

Aurreikus zitekeen zerbait zen. Washingtonen interes eta kapritxoen menpe dagoen prozesu baten erdian gaudela jakitun izanik. Egia esan, ez ninduten harritu nire kontrako salaketek, ezta estraditatzeko eta politikoki eta moralki suntsitzeko asmoak ere. Are gehiago, FARCen barruan ohartarazi eta publikoki salatu nuen egoera hori, Habanan negoziatzen ari ginela, baita gero Kolonbian, akordioa inplementatzen hasi zenean ere.

Mesfidantza gorabehera, itundutakoa aurrera ateratzeko borrokan jarraitu nuen, baita, testigantza faltsuetan oinarrituta eta nire aurkako gerra mediatiko baten erdian atxilotu ninduteneanere. Ez zen eta ez da inoiz frogarik izango, nik horrelako gauzetan ez dudalako sekulan parte hartu.

Nolakoa izan zen espetxeko garaia?

Gobernuaren aldetik, isolamendua eta etsaitasuna. Nire jarrera beti erresistentziazkoa izan zen, zintzotasunez azken ondorioetaraino joatea, iparramerikarrek eta kolonbiar lekaioek nahi zutena egin ez zezaten. Lankideen eta lagunen baldintzarik gabeko elkartasuna izan zen giltzarria nire askatasuna lortzeko.

> “Armak emateko FARCen konpromisoa lotu zuenean, ordutik aurrera harroa eta intrantsigentea izan zen gobernuaren jarrera”

> “Gerrillako borrokalariek ez zuten parte hartu armak entregatzeko erabakian, ez baitzitzaien inoiz galdetu”

Behin espetxetik aterata, ihes egitea erabaki zenuen. Kongresuko Ganberako kide zaren aldetik, bizitza politikoan eskubide osoz parte hartzeko bermerik ez zenuen ikusten?

Ez zen bermerik eta horregatik hartu dut erabakia, ez ihes egiteko, baizik eta klandestinitatean erresistentzian aritzeko, non nire herrialdearen etorkizunaren alde borroka dezakedan jazarpen judiziala eta eguneroko heriotza-mehatxuak gainean izan gabe. Hemen arriskuak daude, baina hiltzen banaiz, borrokan egingo dut, eta ez gupidagabeki balaz josita, armarik gabe, Kolonbiako kasta boteretsuek bultzatzen duten gerra zikinean.

2019ko abuztuan, zuk eta FARCeko beste komandante ohi batzuek armak berriz hartzeko erabakia iragarri zenuten. Bake prozesuaren porrota baieztatuta al dago?

Bake prozesuaren porrota estatuaren gaiztakeriaren ondorioa da. Inplementazioaren krisiak berretsi du. Egunerokoan agerikoa da, agintari komunitarioen eta borrokalari ohien hilketak kasu. Ez genuen bakea sinatu handik hiru urtera 700 lider sozial eta gure 200 bat gerrillari baino gehiago hil ditzaten.

Estatuak ez du bere betebeharrik garrantzitsuena bete: bere herritarren bizitza bermatzea.

> “Ez genuen bakea sinatu handik hiru urtera 700 lider sozial eta gure 200 bat gerrillari baino gehiago hil ditzaten.
>
> “Garai honetan estrategiaren helburuak herri-mugimenduaren batasuna izan behar du, bakea justizia sozialarekin, demokraziarekin eta subiranotasunarekin konkistatzeko”

FARC-EP-Bigarren Marquetalia erakundearen sorrerako agirian deigarria da "oligarkiaren aurkako gerrara" deitu izana, helburu militarren aurkako gerrari lehentasuna kenduz. Zergatik irizpide hori?

Habanako Bake Akordioari Kolonbiako Estatuak egindako traizioari erantzuteko hartu ditugu berriz armak. Gatazkaren arrazoi historikoek bere horretan darraitela salatu dugu, horiek baitira benetako bakea lortzeko gainditu behar diren baldintzak. Agerian utzi nahi dugu matxinada ez dela porrot egin duen edo garaitu duten bandera bat. Manuel Marulanda eta Bolivarren legatuarekin aurrera jarraitzeko indarra du, behetik eta behekoekin lan eginez. Beraz, plan estrategikoa, funtsean, Kolonbia Berriaren aldeko Kanpaina Bolivariarra bera da, baina badira aldaera batzuk, gerra inposatzen dutenei non jo behar diegun definitzeko orduan selektiboagoak eta zuzenagoak izateko. Hor zehaztu dugu helburua ez dela ez soldadua, ez polizia, ez ofiziala, ezta ofizialordea ere. Baina, kasu, erantsi diogu "herri-interesei errespetua adierazteko" irizpidea. Kontua ez da orain estatuko aparatu armatuei errepresio organo gisa nahi dutena egiteko bidea libre uztea. Defentsarako ekintza oro zilegi da.

Helburua oligarkia dela diogunean, oligarkia baztertzaile, ustel, mafioso eta bortitz horri begira esaten dugu, zeinak uste baitu herrialdeari etorkizuneko ateak trabatzen jarrai dezakeela.

Modalitate operatibo berri bat ezarriko dugu, batez ere erasoei erantzungo diona. Erabaki baten ondorio da: ez dugu jarraituko klase bereko anai-arreben artean elkar hiltzen. Oligarkiak ez ditu inoiz bere seme-alabak bidaltzen gerran bularra jartzera. Biktimak pobreen artean geratzen dira. Horra gure deia, baita herri mina duten segurtasun indarretako kideei ere: elkarrekin ibil gaitezen haien aldarrikapen eta zorionaren alde.

M-19ko gerrillak 1970 eta 1980ko hamarkadetan egin zuenaren moduko matxinada armatua?

Iruditzen zait matxinadarako gure planteamendua ez dela aldatu; bere funtsa eta izana herri mobilizazioa eta eraldaketarako gaitasuna dira oraindik. Zehatz-mehatz esan dugu gertatzen ari dena ez dela gure kapritxo baten ondorio. Po-

2019ko maiatzaren 30ean Jesus Santrich espetxetik irten zen eta harrera egin zioten FARC aldediko Bogotako egoitzan. Polemika piztu zen Espainiako eta Kolonbiako hedabideetan berarekin batera agertutako pertsona baten kamisetan ETAren anagrama eramateagatik.

litika neoliberalak, ustelkeria eta gerra sustatzen dituen erregimenak bi bideren aurrean jarri gaitu: elkarrizketa politikoaren bitartez prozesu konstituziogile ireki bati ekin ala aldaketa horiek, lehenago edo geroago, inkonformismoaren eztandak konkistatuko ditu matxinadaren bitartez.

Azaldu zertan datzan erakunde berriaren jardun politiko-militarra.

Altxamendu armatuari eustea erregimena basati eta bortitz aritzearen ondorio da. Horrek defentsarako eta matxinada armaturako eskubide legitimoak geure gain hartzera behartzen gaitu. Horregatik, gure armada, milizia eta alderdiaren egiturak klandestinitatean berreraikitzeko prozesuak estrategia bat behar du, indarra hedatu behar dugu, operazio eta taktikak zehaztu... Horren funtsa borroka moduen konbinazioaren taktika da, gerrilla mugikorren bidezko gerra eta herriaren altxamenduaren kontzepzio matxinoa, bakea justizia sozialarekin batera inposatzeko edo hitzartzeko asmoz.

Horrekin batera, uste osoa dugu bitartekoak dauzkagula irtenbide itundua bilatzen jarraitzeko; bazterkeria, miseria eta desberdintasun izugarriak gaindituko dituen prozesu eratzaile irekia bultzatzeko, estatuaren demokratizaziorantz.

Deigarria da Askapen Nazionalerako Armadara, Kolonbiako eta Amerikako talde armaturik zaharrenera, hurbiltzeko saiakera. Zer nolako aliantzak planteatzen dituzue ELNrekin?

Gure batasun-ikuspegia da. Ez da kontu taktikoa, estrategikoa baizik, sakonekoa, funtsezkoa. Hori gabe ez dugu posible ikusten botere alternatibaren eraikuntzan aurrera egitea. Ez da soilik arlo militarreko kontu bat, nagusiki afera politikoa da. Kontzientziak esnatzeko borroka garai honetan estrategiaren helburuak herri-mugimenduaren batasuna izan behar du, bakea justizia sozialarekin, demokraziarekin eta subiranotasunarekin konkistatzeko. Horretarako masak aktibatu behar ditugu, era guztietako bide matxinatuen bidez, armen monopolioa eta estatuaren boterea lehiatzeko.

Zer iritzi duzu azken gertakari politikoez, bereziki Kolonbiako Lanuzte Nazionalaren barruan izan diren mobilizazio handiez?

Mobilizazioei dagokienez, Ekuadorko indigenen protesta masiboak aurrekari izan ziren. Txilen antzeko zerbait gertatu zen, neurri neoliberalen aurkako altxamendu herrikoi jendetsua hasi zen.

Kolonbiaren kasuan, kalera atera den jendeak Habanako Akordioa betetzea eskatu du, herri mugimenduaren aurkako sarraskiak bertan behera utz ditzatela, ordezkapen akordioak bete ditzatela –laborantza bidegabeak– eta indigenekin eta ikasleekin hartutako konpromisoak bete ditzatela. Akordio zaharrak dira, baina sekula gauzatzen ez diren promesen bitartez egindakoak.

Agerikoa da eltze-jotzeek eta sare sozialek protesta hauetan pisua izan dutela. eta horrekin sintonian jarri behar dugu. ●

MARTXOAK 8

Borrokarako eta antolaketarako deia entzun da

"Antolatu indarrak, batu borroka feministara", dio leloak. Euskal Herriko txoko guztietan lehen lerroan izan dira mugimenduak azpimarratu nahi izan dituen bi mezuak: gizarte indibidualista eta likidoan kolektiboki antolatzeko premia dago; eta M8 ez da festa eguna, feminismo erradikala aldarrikatzeko borroka eguna baizik. Donostiako antolatzaileen begietatik kontatu dugu M8a.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Donostian gaude, Gros auzoan. 10:50ean geratu gara ARGIAko bi kazetari Carmen Altuna Azpeitiarekin. Berandu dator. Halako batean agertu da, eta ez dator bakarrik. Erosketa-gurditxoan musika ekipoa sartu dute eta hamar bat lagun etorri dira bandera moreak eskuetan dituztela. Eman beharreko pausoak errepasatzen ari dira: Gros auzoan bueltaxka zaratatsua, ondoren Kursaal aurrean pentsionistekin elkartu, eta 12:00etarako Alderdi Ederrera.

Aurtengo M8an, antolatzeko beharrari garrantzi handia eman diote. Hala adierazi dute arratsaldeko manifestazioaren bukaerako hitz-hartzean: "Auto-antolaketaren beharra azpimarratzen jarraituko dugu. Neoliberalismoak dena zipriztintzen duen mundu honetan, indibidualismo basati eta atomizatua sustatzen duen mundu honetan, komunitate feminista konprometitua eraiki behar dugu, sare sozialek eragiten duten pasibotasuna gaindituz".

Carmen Altunak 26 urte ditu eta badaki zer den antolaketa lanetan aritzea. Gros auzoan, M8ko lantaldean aritu da lanean eta Donostiako Asanblada Orokorrean ere parte hartu du. M8a prestatzen noiz hasi ziren galdetu eta kazetaria harritu egin da erantzunarekin: urtarrilaren 30eko greba igaro ondoren. Hain denbora gutxi? Donostiarraren erantzuna azkarra izan da: "M8 ez da urteko hitzordu bakarra, U30 greba orokorrean parte hartu genuen eta hartarako

Donostia. Argazkia: DANI BLANCO

Bilbo. Argazkia: ECUADOR ETXEA

Donostia. Argazkia: DANI BLANCO

Iruñea. Argazkia: EKINKLIK

Bilbo . Argazkia: ECUADOR ETXEA

Gasteiz. Argazkia: HALA BEDI

ere lanean aritu ginen. Azaroan Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministak izan ziren eta han atera ziren gaiak jorratzen aritu gara. Azaroaren 25a ere lantzen dugu. Urteak hainbat hitzordu izaten ditu, batzuk jakinekoak, eta beste batzuk, inprobisatu beharrekoak. M8 egunero da guretzat".

Urteko hitzordu nagusiak gerturatzen diren heinean, astero egiten dituzte bilerak. Altunak ez du ukatu nekatuta ez daudenik, baina pozik dago antolaketarako dagoen jendearekin. Gutxi gorabehera 17 urtetik hasi eta 35 urtera bitarteko emakumeak elkartu ohi dira urteko hitzordu garrantzitsuak prestatzeko. Laguntza eskatutakoan pentsionistak beti daude prest. Gehien huts egiten dutenak tarteko adinekoak dira: "Denbora dugunok gabiltza antolaketa lanetan, eta nork du bada denbora horrelakoetan aritzeko?". Aurtengo leloaren lehen zatia gogorarazi diogu Altunari: "Antolatu indarrak". Azken bi greba feministak eta gero, mugimendu feministak kalera ateratako emakume andana balioan jartzeaz gain, egunero militatzeko jendea behar dela azpimarratu duela esan diogu. Altunak sarea jarri du fokuan. Hiriburuetako eta hirietako auzoetan taldeak daude, era berean hiri mailako talde orokorrek funtzionatzen dute, eta azken urteetan herrietan ere indartsu dabiltza. Euskal Herriko sarea nahi baino solteago dagoela uste du Altunak eta horrexen falta sumatzen du: "Bateren batek edo bestek esango dizu: 'Leloa pentsatu duzue? Manifestazio amaierako mezua prestatu duzue?'. Prestatzeaz gain adostu behar da, Donostian, Bilbon, Gasteizen...".

Poz-pozik hartu du parte Altunak M8aren antolaketan, feminismoan kontzientzia osoz militatzen duelako eta bere bizitza ez duelako ulertzen mugimendu horretatik kanpo. Lanerako beldurrik ez du, mugimenduko beste askok bezala, baina onartzen du ardura lanak hartzea kosta egiten dela. Izan ere, aurten beste bi emakumerekin batera, bozeramaile lanak egin ditu eta aitortu du jendeak nekez nahi izaten duela jendaurrean kolektibo osoaren izenean hitz egitea.

Alderdi Ederretik abiatu eta Askatasunaren Hiribidetik barrena Bulebarrean bukatu dugu eguerdiko juntadizoa. Elkarrizketaren zati handiena lurrean eserita egin dugu, bozgorailua eta gure inguruko emakumeak bero-bero oihuka ari diren bitartean.

Helmugan, Bulebarrean, Flo Rodríguez da Costa aurkeztu digu Altunak. Feminista honek ere 26 urte ditu eta Donostiako Asanblada Orokorrean aritu da lanean. Bera ere bozeramailea da. 10-15 laguneko taldea osatu dutela esan digu. Bi greben ondoren mugimendu feministak mahai gaineratu duen beste gai bat aipatu diogu, alegia, kalera ateratzen ari den emakume multzo handiak zenbateraino barneratu duen feminismoaren diskurtsoa. Ideologizazio maila kaskarreko gazteak ezagutu ditu Rodríguezek eta azpimarratu du, hain zuzen, bilerak baliatzen dituztela formaziorako, M8rako egindakoak eta urtean zehar egiten diren beste hainbat. Feminismo erradikalaren aldeko apustuan atzerapausorik emateko asmorik ez dute. "Anti-" guztiak zerrendatzen hasi da: feminismo antikapitalista, antikolonialista, antifaxista, antiarrazista, antikapazitista, eta antiespezista aldarrikatzen dute.

Bazkalondoren hitz egin dugu Rodríguezekin. Akordatzerako eguneko ekintza jendetsuenaren ordua iritsi da, manifestazioa. Donostiarrek eta inguruko herrietakoek bat egin dute, Altunak aipatutako sarea egiazko gorputzez osatu da.

BAIONATIK

Saretzeko gogoa baieztatu da asanblada feministan

"Ipar Euskal Herria feminismotik saretu" leloa aukeraturik, hainbat ekimenen bidez aritu dira helburu horren plazaratzen Ipar Euskal Herriko asanblada feministako kideak. 350 lagun batu ziren Baionan buruturiko manifestazioan.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

"Ipar Euskal Herria feminismotik saretu" lema hautatu zuen aurtengo emakumeen nazioarteko borroka eguna kari Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa biltzen dituen asanblada feministak: asteburu guztian zehar sentitutako gogoa eta manifestazioaren ondotik egindako asanbladan aho batez baieztaturikoa. Antolakuntzaren nekeari gailendu zitzaion asteburuko momentu kolektiboetan jasotako indarra eta aitzina egiteko gogoz dira antolatzaileak. "Babes gune bat ukaiteko", "ahalduntze pertsonalaz gain, kolektiboki ere ahalduntzeko", "elkarrekin gogoetatzeko eta formatzeko", "hitzordu feministak antolatzeko", "ahizpatasun eta laguntasun giro horretan segitzeko", "plazer bat delako"… asanbladan plazaraturiko arrazoiak anitzak dira, baina guztiak zentzu berera doaz: elkartzen segitzeko beharra sendi dute. Ipar Euskal Herriko lau haizeetatik etorritako hogeita bost bat emakume aritu ziren ordu pare batez haien gogoen eta gogoeten partekatzen, Baionako udaletxearen plazan.

Aurten sekula baino hitzordu gehiago burutu dituzte Ipar Euskal Herrian. Mauletik Irisarrira, Itsasutik Baigorrira zein Hendaiatik Baionara ala Azkainera, hamar bat hitzordu zituzten finkaturik. Nafarroa Beherean antolaturiko bizikletaldi feminista izan daiteke agian nabarmentzekoen artean, azken urteetan hitzordu feminista guti antolatu direlako baserri munduan. Asanbladan behin baino gehiagotan deitoratua izan zen gisara, baserri munduan ere kontzientzia feminista zabaltzeko behar handia sendi dute eta aldarri feminista bertaratu izanaz poz-pozik agertu ziren barnealdeko feministak. Irisarri, Ortzaize, Arrosa eta Baigorrin, herriz herri mezua zabaltzen aritu ziren, plaza bakoitzean banderola bat zintzilikatuz.

Baionako karriketan larunbat gauean buruturiko gaueko manifestazio ez-mistoa ere baikorki baloratu zuten antolatzaileek: "Kopuruz asko ez baginen ere, oihuz eta determinazioz beterik indartsu atera ginen karrikara". Lehena izan zuten eta errepikatzeko gogoarekin daude.

BADAKITE ZER DEN ANTOLAKETA ETA BORROKA

Manifestazioaren amaieran, Bulebarreko oholtzan dira Altuna eta Rodríguez antolatzaileak. Haiek baino lehen, ordea, Aitziberrek eta Marijosek hitz egingo dute. Ez dira gure solaskideak bezain gazteak, eta ez dira antolaketa taldekoak ere. Alabaina, aurtengo leloaren bi zutabe garrantzitsuenak oso ondo ezagutzen dituzte: badakite zer den antolaketa, baita borroka ere.

Aitziberrek hartu du hitza. Azken urtebetean jendaurrean hitz egitera ohitu da. Gipuzkoako zahar egoitzetako langilea da eta 237 greba egun egin dituzte. M8 bezperatan, Donostiako Emakumeen Etxean itxialdia egin dute, erakunde publikoek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta patronalek propaganda feminista egiten duten bitartean, emakumeen lan eta bizi baldintzak sistematikoki prekarizatzen dituztela salatzeko. Badakite zergatik ez dieten jaramonik egiten: "Sistema irauli nahi dugulako". Erresidentzietako grebalariek ez dute hotel berririk nahi, ezta erraustegirik eta futbol zelairik ere, zaintza eta duintasuna nahi dituzte.

Mari Jose garbitzailea da eta egunero 6:00etan ateratzen da etxetik. Lehenengo bulego bat garbituko du, ondoren banku bat, arraroa da norbaitek egun onak ematea lantoki horietan. Etxerako bidean duen ezkaratze bat ere garbituko du. Batzuetan denbora gehiago pasatzen du garbitu behar duen toki batetik bestera joaten, garbiketa lanetan baino. Bankuan, esate baterako, 45 minutuko lanaldia du. Eguerdian etxean egiten du lan, familiari bazkaria zerbitzatzen, ordain ekonomikorik gabe, jakina. Arratsaldean, lau orduz aritzen da eskola batean. 20:30ak jotzen dizkio etxean sartzerako. Dozena erdi bat lan kateatu behar izaten ditu zortzi orduko lanaldira iristeko. Dozena bat ordu etxetik kanpora egunero. Pribilegiatua dela dio, zortzi orduko lanaldira heltzen delako. Emakume garbitzaileen %80k lanaldi partzialak ditu.

Antolaketa eta borroka. Aitziberren eta Mari Joseren ondoren, Altuna eta Rodríguezen hitz-hartzeak. Azken txanpan, indarraldiaren erakusgarri: "Gero eta gehiago gara, eta gero eta antolatuagoak gaude". ●

Ez alarmistak izateko diote baina alarma kalean dago, eta beren gezurretatik sortu da”

ZALDIBAR ARGITU PLATAFORMA

Zaldibarko zabortegi amildutik metro gutxira batu gara Janire Lazkano (Elgeta, 1989) eta Jokin Bergararekin (Eibar, 1994). Zaldibar Argitu plataforma sortu berriko kideak dira, eta eskualde hau astindu duen ezbeharretik abiatuta, egoera nola ikusten duten eta zer eskatzen duten galdetu diegu.

LANDER ARBELAITZ MITXELENA DANI BLANCO

Noiz eta nola sortu duzue plataforma?
J. Lazkano: Zabortegiaren inguruko herrietan, ezbeharra gertatu berritan, lehen boteak independenteak izan ziren. Bilera irekiak deitu ziren herrietan eta otsailaren 10en Eibarren, Ermuan eta Zaldibarren manifestazioak antolatu ziren. Hor konturatu ginen herriak koordinatzen hastea garrantzitsua zela. Gerora, elkarrekin antolatu genuen 15eko manifestazioa eta hortik aurrera, herrietako plataforma guztien koordinazioa sortu genuen.

Nongo jendea batu zarete?
J. Bergara: Zaldibar, Elgeta, Mallabia, Markina-Xemein, Ermua eta Eibarko jendea. Horrez gain, Zallan ere mugimendua dago, Joaquinen familia hangoa baita.

Herriz herri lantzen ari zareten –eta beraz, itxirik ez dagoen– hamaika puntuko aldarrikapen zerrenda ikusteko aukera izan dugu. Hasteko, Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran ahalik eta azkarren aurkitzea eskatzen duzue, senideei babesa adieraziz eta erakunde publikoak interpelatuz. Ba al duzue harremanik senideekin?
J. Bergara: Plataformako kide da senide bat eta berak egiten du kontaktua familiekin. Gure aldetik indarrak jartzen ari gara erakundeak presionatzen bilaketekin zorroztasunez jarrai dezaten, ez baitakigu zertan ari diren. Horretara ahalik eta baliabide gehien bidera dezatela eskatzen dugu.

Senide hauek, batez ere Beltranenak, oso haserre mintzatu dira Jaurlaritzaz. Nola ikusten dituzue zuek agintari politikoak?
J. Bergara: Ikusten dugu higiene demokratiko hutsagatik hemen dimisio batzuk behar direla, erantzukizunak hartu behar dituztela, eta horren ordez, normaltasuna antzezteko jarrera hartu duela Jaurlaritzak. Inprobisatzen aritu dira modu txarrean, hasieratik gaia ezkutatu nahi izan dute eta egun, oraindik, azalpenak oso justuak izaten ari dira.

2.0 krisi baten aurrean gaude. Bataila komunikatiboa indartsua izaten ari da.
J. Lazkano: Sare sozialekin obsesionatuta ikusten ditugu, asko kritikatzen baitute Twitter baina gero beraiek erantzunak hortik ematen ari dira. Lotsagarria da.
J. Bergara: Jaurlaritzak sortu duen errelatoa da ez izateko alarmistak, konponduko dutela arazoa. Hori sinetsi nahi duenak hitz horietan aurkituko zuen heldulekua. Gure herrietan, ordea, komunikabideetatik aparte ez da bataila dialektiko hori ikusten, jendeak bere gorputzean sentitu baitu kutsadura. Gurasoak kezkatuta ibili dira ea haurrek parkean lasai jolas dezaketen, haurdun dauden emakumeak ea herritik joan behar diren, kirola ea lasai egin daitekeen... Adibide gisa, urtegira dagoen 5 kilometroko bidean jende asko ibiltzen zen oinez lehen, orain ez dabil inor.
J. Lazkano: Herritarrak ukitu ditu gaiak, oso begi bistakoa izan da. Beren gestioa goraipatzen dute, baina denok sentitu dugu gertatu dena. Eta ez da batere normala. Alarmistak ez izateko diote, baina alarma hori kalean badago. Eta beren gezurretatik sortu da. Dena ongi dagoela esanez ibili dira, eta astebetera datuek kontrakoa erakutsi dute. Mesfidantza handia dago politikari hauekiko.

Zabortegiarekin loturiko eskaera zehatzak dituzue: urteotan zer gertatu izan den, zergatik ez dituzten irregulartasunak zigortu galdetzen duzue; gaur egun bertan zer dagoen zehaztasunez jakin nahi duzue eta eroritako zaborrarekin zer egin erabakitzeko prozesuan herritarren partaidetza bermatzeko eskatzen duzue.

J. Lazkano: Konfiantza falta hain da handia, ez dugula sinesten diotena. Diote zabortegian dagoen hondakin toxiko bakarra amiantoa dela, baina garraiolarien testigantzek hori ezbaian jartzen dute. Hondakinen karakterizazioa egiteko eskatzen dugu ikusteko zer dagoen hor eta nola kudeatu behar den. Azterketa hori ez dugu nahi instituzioek bakarrik egitea, prozesua eragile sozial eta sindikalekin partekatua izatea nahi dugu, eta herritarren partaidetza nahi dugu soluzioan ere. Hala ere, ikusi dugu jada hasi direla lurrak desjabetzen. Ez dute ingurumen planen beharrik, eta larrialdi horrengatik ez dituzte protokoloak betetzen. Salbuespen egoera deklaratu balute bezala ari dira jokatzen, lege oro gaindituz beren hitzetan "interes kolektiboagatik". Hilabete pasa da ordea.

J. Bergara: Zabortegiari garrantzia ematen diogu oso jende gutxik zekielako zabortegi hori existitzen zenik, nahiz eta kamioiak gora eta behera ibili. Zabortegi hori inolako galdeketarik eta informaziorik eman gabe zabaldu zuten. Inguruan bizi garen herritarron osasunari kalte egin diezaieken substantzia piloa botatzen zituzten, eta ez genekien ezer ere. Prozesu herritarra eskatzen dugu osasun publikoari dagokion kontuetan erabakiak demokratikoa izan behar duela aldarrikatzeko. 50.000 lagunen bizitzak daude jokoan. Gainera, Jaurlaritzaren isiltasunari Eibar, Ermua eta Zaldibarko Udalena gehitu zaio. Denak bi alderdi berberek kudeatzen dituzte. Akusazio partikular gisa aurkeztuko dira, baina beraiek ere badute erantzukizun zuzena hori kudeatu izan zen moduan eta horren kontrol faltan.

> *“Gure herrietan ez da bataila dialektikoa ikusten, jendeak bere gorputzean sentitu baitu kutsadura”*

Neurketak sistematikoki egiteko eta informazioa garden emateko eskatzen duzue. Jaurlaritzak dio, ordea, datuak garden ematen dituela.

J. Lazkano: Ez badakigu zer dagoen zabortegian, osasunaren inguruan kezka izango dugu. Ez dakigu bertatik zer aterako den, edozein gas adibidez. Beraiek ere aitortzen dute suteak errepika daitezkeela, hor metanoa baitago eta su har dezake. Ez dute ziurtasunik transmititzen, hipotesiez mintzo baitira. Zabortegiaren behealdean dagoen lixibiatuak biltzeko tankea suposatzen da ez dagoela apurtuta, baina ez dute segurtasunez esaten. Jendea lasaitu nahi baduzu, hori

frogatu egin behar duzu. Ezin duzu hipotesiez hitz egin eta jendeari lasaitzeko esan.

J. Bergara: Ikerketa agentzia independente batek egiteko eskatzen dugu dioxinak aztertu dituen CSIC agentziak ez duelako hori egiteko Europako homologaziorik. Emotikonoen bidez informatzen digute airearen kalitatea, datu zehatz guztiak eman gabe. Diote gaur egun dioxinarik eta furanorik ez dagoela eta airearen kalitatea ona dela, baina ez dute esaten zehazki zein diren analitiken emaitzak. Horrek beldurra sortzen du, jendea ez baita inozoa. Sinesgarritasuna irabazi nahi badute, eurek finantzatu behar lukete agentzia independente baten ikerketa, eragile sozial, sindikal eta instituzioek adostutako agentzia izan behar luke eta hortik egin neurketa guztiak.

Agentzia independentea diozuenean, zaila dirudi erakunde publikoek beren ikerketa propioak zalantzan jarriko dituen ikerketak finantzatzea. Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak, adibidez, berak finantzatu du Zubieta inguruko kutsadura neurketa independentea.

J. Lazkano: Hor dago gakoa, ea ikerketarik baden beren datuen aurka egiten duenik, ala emaitzak berak diren. Elgetan airearen azterketak egin dituztela esan zuten, baina inork ez daki ez noiz, ez non, ez nork hartu zituen laginak.

J. Bergara: Kuriosoa da, zientziaren argudioa erabiltzen dute herritarrak lasaitzeko, eta zientzia eskatzen diezunean, beldurra dute datu guztiak erakusteko edo beste agentzia bati ikerketa eskatzeko. Hor sortzen da galdera nagusia. Gainera, herrietara Eusko Jaurlaritzako teknikariak etorri direnean, oso azalpen teknizistak eman dituzte, mezua publiko orokorraren eguneroko bizitzan zentratu beharrean, beren txostenetako datu eta markoan oinarrituz. Adibidez, Eibarrera eta Ermura etorri zirenean, jendeak galdetzen zuen ea amianto fibrak arnasten ari garen edo osasunari nola eragingo dion honek guztiak. Teknikariek etengabe ihes egiten zieten galderei eta ez zuten erantzuten, teknizismo ilun eta barrokoak baliatuz.

Planteatu al duzue ikerketa independentea zuek finantzatzea?

J. Lazkano: Pentsatu beharko da, baina hasten ari gara. Baliabide ekonomikoak mugatuak ditugu.

Erantzukizunen fasean, Iñaki Arriola Ingurumen sailburuaren dimisioa eskatzen duzue. Zergatik?

J. Bergara: Arriolaren figurak kontu honetan karga sinbolikoa du. Eibarko alkate izan zen 15-16 urtez. Bere Ingurumen sailburu aldia da zabortegiak diru gehien fakturatu duen epea. Hau guztia ahalbidetu duen sare klientelarraren buru politikoa bera da. Jaurlaritzak ere hartu behar ditu erantzukizunak bere gain, eta uste dugu Arriolak ezin duela jarraitu kargu publikoan. Dimisio gehiago eskatuko bagenitu indarra galduko luke eskaerak, eta horregatik fokalizatuko dugu bere gain.

"Hondakinen kudeaketa zuzen, publiko eta zentzuzkoa" eskatzen duzue, "egungo ereduaren birplanteamendu sakon eta zabala". Jakitun izango zarete bere garaian gehiago birziklatzeko proposamenak indarrean jarri zirela eta jasan zuten boikota oso handia izan zela. Gai honetan sartzeko prest zaudete beraz?

J. Lazkano: Gu plataforma gisa ez gara eredu zehatz baten inguruko eztabaidan sartuko, jo dezagun atez atekoa bai ala ez, baizik eta bereizte tasak handitu behar direla jarriko dugu mahai gainean. Oso-oso erraz gainera. Hondakinak kudeatzeko sistemak birplanteatu egin behar dira, elkarrekin kontsentsuatu behar dira, sortzen diren hondakinak murriztu egin behar dira, berrerabilpenean lan egin behar dugu, eta sortzen diren hondakinak birziklatzeko bai edo bai erabakiak hartu behar dira, bai udalek, baita herritarrek ere. Gipuzkoako hainbat herritan erakutsi da posible dela, ez gara hil, %70eko bereizketa tasekin jarraitzen dugu, eta beste herriek ere horretara joan behar dute. Sistema konkretuez baino, bilketen emaitzez hitz egin nahi dugu. Horrez gain, arduraz jokatzeko eskatzen zaigu herritarroi, eta guk erantzuten dugu instituzioek ere arduraz jokatu behar dutela kontroletan.

J. Bergara: Plataforma anitza garenez, gure helburua da ahalik eta adostasun zabalena lortzea eta gaurko ereduaren birplanteamendu sakona egitea. Guk eztabaida zabaldu nahi dugu. Zaborra gainera erori zaigu eredu kapitalista honengatik. Horrekin lotuta, ezin dugu zaborra esku pribatuetan utzi, ezin da negozioa egiteko esparrua izan. Bere garaian, EAJk Bergarako leihoak zabor poltsekin nola bete zituen oroitzen dut, eta orain natura jarri zaie aurka. Beraientzat gai oso deserosoa da eta min handia egiten die.

Paroa deitu duzue martxoaren 12rako Eibarren, Ermuan, Zaldibarren, Elgetan eta Mallabian 12:00etatik 15:00etara. Zergatik?

J. Lazkano: Borroka egiteko eta haserrea adierazteko beste modu bat delako. Era askotako ekintzak egin ditugu, eta "kito" esateko momentua dela uste dugu. Hilabete daramagu horrela eta ez da asko aurreratu. Gure aldarrikapenak herritarrekin kontrastatu eta aurrera eraman nahi ditugu.

J. Bergara: Ikusi dugu gertaera hau pixkana albistegietako 40. minutura joaten ari dela, eta normaltasun hori eteteko, oraindik ez dela ia ezer argitu esateko eta egoera tenkatzeko egin dugu deialdia. Mobilizazioetan ere beste jauzi bat eman nahi dugu. Herrietan goizean mobilizazioak eta arratsaldean Eibar-Ermua batzen dituen biribilgunetik manifestazioa egingo ditugu. Dei egiten diegu Euskal Herriko beste herri eta hirietan, hondakinen kudeaketa birplanteatzen ari diren guztiei, elkarretaratzeak antolatzeko. ELA, LAB, CCOO, Steilas eta ESK sindikatuen babesa daukagu gainera.

Aurrera begira, indartsu al zaudete borroka luze baterako?

J. Lazkano: Gustatuko litzaiguke berehala konponduko balitz guztia, baina horrek esan nahi luke konpondu dela, langileak aurkitu dituztela, erantzukizunak beren gain hartu dituztela, herritarrekin parte hartze prozesuak ireki direla... Ez dugu uste epe laburrean gertatuko direnik. Helburuak finkatu ditugunez, horiek lortzeko amaiera arte egingo dugu lan.

J. Bergara: Badirudi bide judizialetik luzatu nahiko dutela kontua, bospasei urtez, eta beraz, hor presente egon nahi dugu. Ahalik eta eragile gehien batu eta denok estrategia bateratu batekin prozesu horretan parte hartu. Horrez gain, pentsatu behar dugu nola mantendu gaia bizirik, ez dadin izan haserrealdiko kontua. Gero hauteskunde kanpaina dator, gero gobernu berria... lehentasuna du larritasuna adierazteak, eta aurrera begira herriz herriko plataformen indarren arabera ariko gara. Orain adibidez, banderolak atera ditugu herriotan leihoetan jarriz, begi bistan jartzeko hemen ez dagoela normaltasunik. ●

“Kanpotarrari gaztelaniaz egiten badiogu, esaten ari gatzaizkio katalanak ez duela garrantzirik”

ROSARIO PALOMINO, PERUKO KATALANA

Rosario Palomino Liman (Peru) jaio zen eta 30 urtetik gora daramatza Bartzelonan bizitzen. Katalanez erraz egiten du, eta hala ere, katalan hiztunek gaztelaniaz egiten diote, kanpotar itxura duelako. Badaki errespetuaren izenean egiten diotela gaztelaniaz, baina bera diskriminatua sentitzen da. Katalan hiztun autoktonoei kanpaina luzatu die: *No em canviïs la llengua* (Ez aldatu hizkuntzaz).

ONINTZA IRURETA AZKUNE JORDI BORRÀS

Iazko maiatza zen. Rosario Palomino Bartzelonako El Clot auzoko merkatu batera joan zen butifarra jana zegoelako. Txartelak erosteko ilaran saltzaileari galdera bat egin zion katalanez, ahal duen guztietan hitz egiten duen hizkuntza berean. Saltzaileak gaztelaniaz erantzun zion. Ilarako batek kargu hartu zion saltzaileari: “Zergatik egin diozu gaztelaniaz, berak katalanez egin badizu?”. Beste pare bat galdera egin Palominok eta saltzaileak berriz ere gaztelaniaz, eta ilarakoak berriz ere kargu hartu zion. Saltzaileak gaztelaniaz jarraitu zuen. Palominok dio saltzailea blokeatuta geratu zela lehen kargu hartzetik. Tirabira sortzetik urrun, barrez hasi ziren eta Palominok hala bota zion: “Ez aldatu hizkuntzaz!”.

Gertaera eta gero Palomino saltzaileari kargu hartu zion erosleare-kin eta haren senarrarekin hasi zen hizketan. Kolonbiarrak ziren, emazteak ondo egiten zuen katalanez eta senarra ikasten ari zen. Biek aitortu zioten Palominori gauza bera gertatzen zitzaiela: haien itxura fisikoagatik gaztelaniaz egiten zioten, nahiz eta haiek katalanari eutsi. Peruarrak argazkia atera eta Twiterrez zabaltzea proposatu zien, katalan hiztunei eskatzeko ez aldatzeko hizkuntza. Horixe da *No em canviïs la llengua* kanpainaren abiapuntua.

Twiterrez bidalitako mezu hura izan zen hasiera.

Bai, hala da. Dena dela kanpainako esaldia motzagoa da. 30 urte daramatzat hemen eta beti esaldi bat esaten diet gaztelaniaz egiten didatenei: “Ez aldatu hizkuntzaz, bestela ez dut inoiz ikasiko”. Hiruron argazkiarekin bidalitako txioak

Nor da arrazista?

"Kanpainan 'autoktono' hitza erabili dut. Bertako katalan hiztunei hitz egin nahi nien eta hitz bat behar nuen haiek definitzeko. Batzuek nire asmoa desitxuratu dute autoktono hitza erabili dudalako. Jaio den toki berean bizitzen jarraitzen duena da autoktonoa. Katalan aurpegia ez daukatenei katalanez egiteko eskatu dugu eta batzuek arrazista deitu digute. Non dago arrazismoa? Arazoa ez da gu desberdinak garela adieraztea, baizik eta itxuragatik desberdin tratatzea".

hainbeste bertxio izan zituen, erabaki bainuen *No em canviïs la llengua* [@CanviisEm] kontua irekitzea. Ni bezala zebiltzanei dei egin nahi nien, haien gertaerak kontatzeko eta kanpainarekin bat egiteko. Erantzuna sendotu ahala interneten plataforma gehiago ireki nituen: Instagram, Facebook, Telegram, eta jendeak grabatutako bideoak.

Nori egiten diote gaztelaniaz?

Atzerritar itxura dugun guztiekin egiten dute, izan latinoamerikarrak, beltzak, asiarrak... Hizketan doinu berezia duenari ere gauza bera egiten diote. Eta badakit holandarrak edo alemaniarrak ere horrela dabiltzala. Azken horiek ez dute kanpotar tankerarik, eta agian doinuan ere ez diete antzeman, baina haien izena jakin dutenean edo pasaportea begiratu dietenean automatikoki gaztelaniaz egin diete. Ezagutu ditut errusiarrak eta errumaniarrak, haien lehen hizkuntza ez da gaztelania, eta batzuek gaztelaniaz hitz egiteko zailtasunak dituzte.

Beraz, kontua ez da itxura fisikoa soilik.

Beste toki batean jaio denaren arrastoren bat baldin badago, autoktonoak automatikoki gaztelaniara pasatzen dira.

Zergatik?

Bi arrazoi daude. Batetik, hezurretaraino sartu diete errespetuagatik aldatu behar dutela hizkuntza, eta bestetik, haiek uste dute herritar orok gaztelania dakiela. Katalanak atseginak dira, eta besteen bizimodua errazten saiatzen direnez, uste dute gaztelaniaz eginda laguntzen digutela.

Zuek nola bizi duzue jarrera hori?

Etorri berriak eta hemen urte asko daramatzagunok diskriminaziotzat hartzen dugu hizkuntza aldatzea, ia errefusatuak sentitzen gara. Niri bertakoen eta kanpotik datozenen arteko zubiak egitea gustatzen zait. Bertakoek ez dute nahita hartzen jarrera hori. Jende askori esan diogu nola sentitzen garen eta gaizki sentitu dira, ez dira konturatu min egiten ari direnik eta eskerrak eman dizkigute gure sentimenduak azaltzeagatik.

Jende batek interesa du azpimarratzeko katalanek kanpotarrak diskriminatzen dituztela, baina faltsua da ideia hori. Niri eta ni bezalako beste askori eskerrak eman dizkigute hizkuntza ikasteagatik eta hona egokitzeagatik.

Hainbat hizkuntzari gertatzen zaio gauza bera. Zuenean katalana da hizkuntza menderatua eta gaztelania menperatzailea.

Arrazoi nagusia hori da, jakina. Kataluniaren historia berrikusi besterik ez dago. Hiru mendetako kolonizazioa. Espainiaren kolonia ohi batean jaiotakoa naiz. Pare-parekoak dira bi adibideak.

Etorri berriak uler dezake hizkuntza komuna gaztelania dela.

Gaztelaniara aldatzen garen bakoitzean katalana arrisku bizian jartzen dugu. Alemaniara, Ingalaterrara edo Frantziara joaten bagara eta hizkuntza ez badakigu, pentsatzen dugu esnatu eta hizkuntza ikasten hasiko garela, ezta? Hona edo Euskal Herrira iritsi eta jasotzen duten mezua bada katalana edo euskara beharrezkoak direla, esnatuko dira eta ikasiko dute. Alabaina, gaztelaniaz egiten badiegu mezua bestelakoa da: ez zaitez saiatu ere egin hizkuntza ikasten, gaztelaniarekin nahikoa duzu.

Batzuek diote katalanek hizkuntza aldatzen dutela Generalitateak bere lana ondo egiten ez duelako, eta beste batzuek diote estaturik ez dugulako gaudela horrela. Sentitzen dut, baina ez nago ados. Denok dugu ardura, katalan hiztun bakoitzak ere bai. Behetik gora egin behar da lan. Generalitateak milioiak gastatuko ditu eta ez du funtzionatuko, estatua izango dugu eta ez du funtzio-

natuko. Hamar milioi katalan hiztunok jabetu behar dugu hizkuntza zaintzen ez badugu desagertu egingo dela. Guk gaztelaniara jauzi egiten badugu, kanpotarrari esaten ari gatzaizkio gure hizkuntzak ez duela garrantzirik.

Ciudadanos alderdiak salaketa jarri dizue kanpainarengatik.

Ciudadanosek lan ikaragarria egin du. Hizkuntza eta kultura menperatuari egunero esan dio hizkuntza eta kultura babesten baditu xenofoboa, arrazista eta supremazista dela. Azkenean, hiztunak atzera egiten du, gatazka saihestu nahi du, eta hizkuntza aldatzen du.

Euskal abizena duen [Maite Pagazaurtundua] Europako parlamentuko ordezkari batek Europako parlamentuan eta Espainiako Arartekoaren aurrean salatu gaitu kanpaina xenofoboa eta arrazista egin dugulako.

Hasteko, ez da Generalitatearen kanpaina, pribatua da, eta ez gaitu inork diruz laguntzen. Ikertu nahi banaute, hemen nago, ez naiz ezkutatuko. Kanpaina katalan hiztunei zuzendu diegu. Beste kontu bat da hainbat herritarrek gaztelaniaz hitz egitea nahi izatea. Iruditzen zaien moduan egin dezatela. Hala ere, %93k katalana ulertzen du, nik uste dut katalanez egiten jarraitu dezakegula inolako arazorik gabe. Nik katalanez eta besteak gaztelaniaz. Guk ez dugu esan gaztelania hiztunek guri gaztelaniaz ez egiteko, baizik eta gurekin aritzerakoan katalanetik gaztelaniara ez aldatzeko gure itxura fisikoagatik, jada katalan hiztunak baikara!. Gure diskurtsoa, esan dutenarekin alderatuta, oso desberdina da.

Ciudadanos zauria egiten ari da hizkuntza kontuetan?

Jaio zenetik. Mundua kolore bakarrekoa ikusten dute, haientzat ederra litzateke euskara, katalana, galegoa... desagertuko balira. Zergatik egin dute gogor gure kanpainaren aurka? Beraien diskurtsoa deseraiki dugulako. Haiek edozein aukera baliatzen dute esateko katalan hiztunak arrazistak, xenofoboak eta klasistak direla. Diskurtsoa erori zaie zeren atzerritarrak hasi dira esaten etorkin sentitzetik nazio katalanaren kide sentitzera pasatzen ari direla. Ni neu harro nago Perun jaio naizelako eta harro nago katalan sentitzen naizelako.

Euskal Herrian ez litzaiguke gaizki etorriko zurea bezalako kanpaina bat.

Hemengo euskaldun bati bota nion amua, baina ez zen ezer atera. Ni prest zuei laguntzeko. Ez egon zuen gobernuak dirutza gastatu zain, behetik gora egin behar da. Faxismoari zutik egin behar zaio borroka, pixka bat makurtuta zaudela antzematen badu gogorrago joko zaitu. Horregatik esan nion Ciudadanoseko hari aurrean ninduela, egiteko galderak, erantzungo nituela. Francoren garaia bizi izan zutenak ditut gogoan. Ezin dugu gutxiagotasun konplexua errepikatu. Gazteek "nahikoa da!" esan behar dute. ●

Biografia linguistiko eria

Rosario Palominoren aita Cusco hirian jaio zen eta 10 bat urterekin emigratu zuen familiarekin Limara. Han kitxua galdu zuen. Palominok azpimarratu duen moduan, "baserritarren eta behartsuen hizkuntza da, gutxiespenarekin lotuta beti ere". Gorde zuen gutxia ez zion alabari irakatsi. Palominoren amak ez zekien kitxua. Gure elkarrizketatuak dio bakeak egin dituela bere sustraiekin eta egunen batean kitxua ikastea espero duela, "nire ama hizkuntza beharko lukeena".

UDABERRIAREN HORITZA

JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Koloreen sasoia da. Landareak, loaldiari bizkar eman, eta urte berrirako soineko berria janztera doaz. Nonahi lehertzen da haritza (*Quercus robur*) puntta berrien hostozko gona fosforitoz. Mimosa pinpirinak (*Acacia dealbata*) beilegia dakar goiko muturretik hasi eta beheko barrenerainoko soineko luze horia. Horia kadmioarenaren tankerakoagoa du oteak (*Ulex spp.*); ikusgarria otadietan. Aurten berandu samar loratu da, eta aurreratu egin diren magnolia hosto-erorkorrak (*Magnolia x soulangeana, Magnolia loebneri, Magnolia stellata, Magnolia liliiflora*, eta abar) ia pare-parean jarri zaizkie zuri ezin zuriagotik hasi eta gorrindol bizienaren arteko kolore ñabardura guztietako loretzar sorta ikaragarriak erakutsiz.

Bai, urte bakoitza berea da, berezia... Urtero aldatu egiten da lorez eta hosto berriz osatutako soinekoen erakustaldiaren hurrenkera. Mimosa bera urteberriaren sarrera loratuta agurtzen ezagutu izan dut. Haritza, ordea, ez dut ikusi aurten arte otsailari ongi-etorria emateko hostoz jantzita. Dena dela, urtero-urtero udaberriaren etorrerak ustekabean harrapatzen nau. Aurten, begira, udaberria otsailarekin etorri zen, eta arrats apal gorri bat jokatuko nuke apirilarekin bateratsu joango dela. Bai, udaberriaren agurrak ere ezustean harrapatzen nau, jeneralean. Asteak dira udaberria badoala esan eta esan ari natzaiela ingurukoei; batek baino gehiagok esango du, "hemen da hau berriz ere bere erretolikarekin".

Orain goza dezagun udaberria. Landareak eta horien bizkar bizi garen animaliak abian gara, ziztu bizian. Hegaztien olgeta zaratatsua entzun besterik ez dago; gure etxeko urubi sendiak egunero du kantu probasaioa. Erlastarrak etengabeko sartu-aterean ari dira atariko paradisuko hegaztiaren (*Strelitzia reginae*) lore hori laranjatuetan, nektarretan. Larreak ederki berritzen ari dira. Txikori-belarraren (*Taraxacum officinale*) lehen loreak ireki dira, bakoitza eguzki bana. Tarteka, han-hemen, apiaza edo urre-botoia (*Ranunculus acris*) azaldu da, ohi bezala multzoka, kuadrillan, bost petalo hori bizizko lore luze ugari belar gainera altxeaz.

Apiaza edo urre-botoia. Udaberriaren emana loretza horiak abiatzen du, horitzak.

Lehengo mendearen azken hiru hamarkadetan eraikitako lorategietan ohikoa den forsitiak (*Forsythia viridissima*) udaberriaren amaierari abiatzeko seinalea ematen dio bere hori urrezko eskandaluzko loretzarekin.

Udaberriaren emana loretza horiak abiatzen du, horitzak. Txekor jaio berria behiaren oritzak abiatzen duen era berean.

Margoen hurrenkeran, uda giroa agurtzera gero etorriko dira loretza zuriak, ondoren gorriztak, urdinak... Zuritzak, gorritzak eta urdintzak. ●

IHURRITA ERROTA

GIPUZKOAKO ERROTEN GALERARI IRAUN DION ONDAREA

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

700 bat errota martxan egon ziren garai batean Gipuzkoan, baina gaur egun era tradizionalean lan egiten duen errota gutxi gelditzen da, hogei bat inguru edo". Oiartzungo Ihurrita Errota da martxan dirauen horietako bat, Alex Roteta Yurrita Errota Sustatzeko Elkarteko kideak azaldu digunez. Errotako etxean jaio zen Roteta, eta txikitatik ezagutu du bertako funtzionamendua, aitonak xehetzen baitzuen bertan pentsu almazenerako. "Etxerako eta inguruko baserrietarako egiten zuen lan: Oiartzun, Errenteria, Pasaia, Lezo... jende asko etortzen zen inguruetatik pentsu bila hona", dio. 1499ko dokumentu zaharretan jada agertzen da Ihurritako errotaren, kanalaren eta presaren aipamena, baina Rotetak dio lehenagotik ere martxan zela uste dutela.

2015ETIK, KULTUR ONDARE BABESTU

XX. mendean jarduera nahiko intentsiboa izan zuen errotak baina XXI. mendean sartzearekin gurasoak jubilatu ziren eta bestelako planteamendua dute orain: "Lehen eguneko 24 orduetan egiten zuen lan, eta orain berriz, errota jada ez du beharrak mugitzen, kulturak baizik". 2015eko azaroan kultura ondare izendatu zuen Eusko Jaurlaritzak Ugaldetxo auzoko errota, monumentu sailkapenarekin. "Arto irin kilo gutxi ehotzen dira orain urtean zehar, baina kantitatez asko ez bada ere, kulturalki eta sinbolikoki eragin handia duela uste dugu", dio Rotetak.

Errotari balioa emateko sortu zuten duela bi urte Yurrita Errota Sustatzeko Elkartea Rotetak eta etxekoek. Oiartzun inguruan errota ezagutarazteko eta zein funtzio eta balio duen erakusteko hainbat ekimen antolatu dituzte geroztik. "Pertsona elikatzeko darabilgu gaur egun errota, irina egiteko, eta bereziki herritarrekin, ekoizle txikiekin, elkarteekin eta zenbait talogilerekin dugu tratua".

EKOIZPEN ETA KONTSUMO JASANGARRIEN ALDE

Ihurritako ondare material eta ez materialaren balioa ezagutarazteaz gain, jasangarritasunari lotutako beste hainbat helburu ere badituzte elkarteko kideek. Izan ere, ekoizpen eta kontsumo eredu erantzule baten alde egiten dute, eta errotarako arto mota jakin batzuk soilik erabiltzeko hautua egina dute: "Ez da garai batean bezala arto industrialik erabiltzen, bertako arto ekoizpen txikien aldeko apustua egin dugu".

Arto gorriarekin hasi dira irina egiten. Behe Nafarroako zenbait ekoizle txikiri hartzen diete artoa zuzenean, eta momentuz 200 bat kilo irin soilik ekoitzi baditzute ere, poliki-poliki horri heldu nahi diotela azaldu digute. "Dena den, ez diogu kantitateari garrantzia handiegirik ematen, garrantzia gehiago du jakiteak zein artorekin egiten dugun lan, jatorria zein den, nork egin duen eta nola". ●

AGENDA

ZULOAN liburuaz hitzaldia

Liburuaren egile Urko Apaolaza arituko da, AHTrik Ez Nafar Koordinakundeak antolatuta, *AlTAVoz eguna*-ren baitan.

Martxoak 14 16:00etan
Iruñea Plazara! (Kale Nagusia 31)

BERDEA DA MORE BERRIA liburu aurkezpena

Liburuaren egile Onintza Irureta eta Gipuzkoako zaharren egoitzetako Aitziber Aranberri grebalaria arituko dira mahai-inguruan.

Martxoak 14 17:00etan
Altzo Batzarremuñon

ELKANOREN MUNDU BIRAREN V. MENDEURRENA: ZER DUGU OSPATZEKO? ZER DUTE EZKUTATZEKO? hitzaldia

ARGIAN izenburu bereko erreportajea argitaratu zuen Axier Lopezek emango du hitzaldia.

Martxoak 24 18:30ean
Zumarraga Zelai Arizti kultur etxea

Martxoak 31 19:00etan
Iruñea Kata Krak

EZ GARA NEUTRALAK liburu aurkezpenak

Liburuaren egile Gorka Bereziartua arituko da.

Apirilak 30 11:30ean
Leioa Unibertsitatean

INDARKERIA MATXISTA ETA HEDABIDEAK

Aitziber Zapirain zuzenean.

Esateko moduak eta moduak daude

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Kontzientzia izatea ondo dago, pauso bat da. Baina noraino dauzkagu sartuta gure buruetan hitz egiteko moldeak? Zenbateraino eragiten du kazetariaren lanak, esaten edo idazten dugunak, jendartearen diskurtsoan? Nahikoa erreparatzen al diogu egiteko moduari? Egiten dugun hizkuntzaren erabilerak ba ote du eraginik entzule-ikusle-irakurleengan?

Antxeta irratiak indarkeria matxista euren "etxean", irrati komunitarioan nola lantzen duten aztertu du. Orain urtebete egin zioten galdera beren buruei: "Kontzientzia badugu, baina nola eragiten dugu guk indarkeria matxistaren aurrean?", azaldu digu Aitziber Zapirain, irrati libreko kideak.

Indarkeria matxistaren aurkako egitasmoa garatzen urte batzuk daramatzate jada Bidasoaldeko irratian. Elkarrizketa sortak egiten dituzte urtero, gaia josten duten hariei tiraka: indarkeria fisikoa, indarkeria sinbolikoa, indarkeria hezkuntzan... Baina beharra ikusi zuten barrura begirako lanketa egiteko.

ORAIN ARTEKOAK

Hala Bedi irratiko kideekin, Arrosa Sareko koordinatzailearekin eta *ZebraBidea* magazineko gidariarekin egin dituzte elkarrizketak eta bidelagun duten Amelia Barquin adituaren hitzak ere azpimarratu ditu Zapirainek: "Formazio beharra dago, baita esperientziak, zalantzak eta kezkak planteatzeko espazio baten beharra ere".

Irratian gidoia aurrean izan edo ez, inprobisazioari tarte zabala ematen zaio, baina hala dio kazetariak: "Ongi komunikatzen jakin behar dugu. Esaten duguna edo esan nahi duguna nola esan behar dugun asmatuz". Gogoetaren beharra ikusi zuten. Irratietatik hasi eta prentsa idatzi eta telebistaraino.

Irrati libreetan hasitako bidea da eta orain gainontzeko komunikabide herritarretara zabaldu nahi dute. "Orokorrean euskal hedabide herritarretan nola komunikatzen den begiratzen ari gara. Ez da soilik nola komunikatzen den, baita zer komunikatzen den ere. Nor den informazio iturri, nori ematen zaion ikusgarritasuna, zein pertsona eta zein ereduri... Beraz, ARGIArekin bilduta gaiarekiko bere lan eredua ezagutu nahi dugu".

Prozesua bukatutakoan elkarrizketa guztiak argitara emango dituzte. Beste ezer diseinatu gabe badago ere, gustatuko litzaieke hemendik aurrerako kezkak eta zalantzak partekatzeko plaza bat sortzea, "deus astuna izan gabe, konfiantzazko espazio bat, elkar elikatzeko". ●

Hondamenak aldatu ez zuena

NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA

Pas-de-Calais departamendua (Frantzia), 1906ko martxoaren 10a. Lensetik gertu, Courrièresko meatzeetan, ikatz-hautsak su hartu eta eztanda izugarria eragin zuen goizeko 06:34ean. Ordura arteko meatzaritzako istripurik larriena izan zen: ofizialki 1.099 hildako eragin zituen eztandak, baina ziurrenik gehiago izan ziren arauzko kontraturik ez zuten langile asko aritzen baitzen Compagnie des mines de houille de Courrières enpresarentzako lanean.

Eta ziurrenik gutxiago izango ziren, konpainiak krisia beste modu batera kudeatu izan balu. Enpresaren lehentasuna meatzea ustiatzen jarraitzea izan zen, hau da, meatzearen azpiegiturak zaintzeaz arduratu ziren, langileez kezkatu gabe. Erreskate lanak hirugarren egunean eten zituzten; hainbat hobi hormatu zituzten sutea itzaltzeko eta egitura sendotzeko, oraindik bizirik zeudenei irtenbidea eragotziz; aireztatze fluxua aldatu zuten, eta barruan zeuden meatzariak eta erreskate taldeak aire freskorik gabe utzi zituzten.

Eta, hala ere, martxoaren 30ean, istripua gertatu eta 20 egunera, 13 meatzarik onik ateratzea lortu zuten. Inork ez zien lagundu; alderantziz, oztopoak besterik ez zituzten topatu. Meatzeko galerietan atzera eta aurrera, kilometroak eta kilometroak ibilita, eta hildakoen jan eta edanari esker iraun zuten bizirik.

COMPAGNIE DES MINES DE COURRIÈRES

Protestak berehala piztu eta zabaldu ziren. Courrièresko meatzariak abiatutako greba estatu osora eta Belgikako zenbait meatzetara zabaldu zen. Protestaldiaren une gorenean 60.000 meatzari zeuden greban. Baina sindikatuen arteko barne gatazkek ahuldu zuten mugimendua eta akabera George Clemenceauk –orduan barne ministro zenak eta aurrerago lehen ministro izango zenak– eman zion, meatzarien aurka 30.000 militar mobilizatuta.

Courrièresko hondamena meatzariak erreskatatzeko talde profesional antolatuen jatorritzat jotzen da. Baina, bestela, ezer gutxi aldatu zen Courrièresko naiz beste meatzetako langileen segurtasun baldintzetan. 1942ko apirilaren 26an Txinako Benxihu ikatz-meatzean gertatutako istripuak Courrièresko marka beltza hautsi zuen: 1.549 meatzari hil ziren.

Eta ezer gutxi aldatu zen 20 egunez meatzean egon ondoren bizirik irtendako bi meatzarirentzat. Txinakoa gertatu zenean oraindik Courrièresko zuloan lanean ari ziren biak, istripuaren ondoren beste 42 eta 45 urtez jardun baitzuten bertan, beste erremediorik, beste bizibiderik ez zutelako. ●

CESARE ABBATE / PARCO ARCHEOLOGICO DI POMPEI

Ponpeia Proiektu Handia 2014-2020

2014an Ponpeia Proiektu Handia jarri zen abian, 2.000 urtetan lurrikarak, higadura, espoliazioa –eta askotan ahazten edota propio ezkutatzen den arren, Bigarren Mundu Gerrako aliatuen bonbardaketa– jasan dituen aztarnategia berreskuratzeko.

Sei urteko proiektua aurten amaituko dute. Guztira, 45 eraikin zaharberritu dituzte, eta Regio V eremua, orain arte ikertu gabea, induskatzen hasi dira. Berritutako eraikinen artean, Amoranteen etxean egindako lana nabarmentzen da, 80ko hamarkadan lurrikara batek kalte handiak eragin baitzizkion.

Regio V eremu berrian, aldiz, Leda eta beltxargaren freskoa (ezkerreko argazkian) eta balkoien kalezuloa aurkitzea izan dira berririk aipagarrienak ●

EUSKARAZKO BIKOIZKETA

Planifikatutako abandonu baten historia

Gogoratzen Euskal Herriko haurrak ETB1en euskaraz ematen zituzten marrazki bizidunei pegatuta geratzen ziren garaiaz? Agian ez, aspaldiko kontuak baitira horiek honezkero: urtetan egindako murrizketen erruz, apenas ikusten den gaur egun marrazkirik, telesailik edo pelikularik euskaraz bikoiztuta. Noiz eta ikus-entzunezkoek gizartean duten eragina izugarri handitu den garaian. Urte eta erdi daramate greban Bieuse elkartean bildu diren bikoiztaileek, lan baldintza itogarrien aurrean planto egitea erabaki zutenetik. Gauzak puntu honetara nola iritsi diren esplikatu digute.

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Xabier Alkizak *One Piece* anime telesaileko Monkey D. Luffy pertsonaiaren aurpegia dauka bere Twitterreko kontuan. Bikoiztaile euskaldunak biltzen dituen Bieuse elkarteko kidea da, berak jartzen zion ahotsa deabruaren fruitua jan ondoren gomazko gorputza geratu zitzaion mutil gazte irribarretsu horri. Kontatu digunez, telesaila 2007. urtean hasi ziren emititzen ETB1en. Emaitza ez zen nolanahikoa izan: informatiboek baino audientzia hobeak ematen zituen. Bazirudien *Dragoi Bola* amaitu zenetik euskarazko telebistak lortu gabeko zerbait lor zezakeela berriro ere: marrazki bizidun japoniarren zaleak ohitzea euren pertsonaia gogokoenak euskaraz hizketan entzutera. Baina 156 kapituluren ondoren, telebista autonomikoko arduradunek ez zuten *One Piece* bikoizten jarraitu nahi izan. Kasu partikular horrek ilustra dezake euskarazko bikoizketan azken hamarkadetan gertatzen ari dena. Alegia, berdin duela zer egiten den, nola egiten den eta zenbat jendek ikusten duen, erabakiak beste irizpide batzuen arabera hartzen direlako. Hezur haragizko Xabier Alkizak hala uste du behintzat. Donostiako Egia auzoko taberna batean egin dugu hitzordua berarekin, dagoeneko urte eta erdira iritsi den bikoiztaile euskaldunen greba zertan den jakin nahian. Luffy bezain irribarretsu ez, baina aho bizarrik gabe aritu da elkarrizketak iraun duen ordu osoan zehar. *One Piece* bertan behera uzteari buruz eman duen azalpena da horren erakusgarri: "Oso serie korala zelako eten zuten, jende askok parte hartzen zuelako. Nahiz eta telebista ia edukirik gabe zegoen, egiten zen apur hori ere gehiegi iruditzen zitzaien. Nahi dutena da *Go!azen* estiloa, tipo bat hartu dohainik jarriko dena kamera aurrean edo Klaudioren programara joango dena dohainik hitz egitera".

Urtetik urtera okerragoak ziren lan baldintzek probokatu zuten bikoiztaileek planto egitea 2018ko irailean. Euskal Aktoreen Batasunaren (EAB) *Jokulariak* aldizkarian argitaratutako ohar batean esplikatu zutenez, "luze zetorren egoera kaskar baten okertzeak ekarri zuen lanbidean genbiltzan pertsona batzuk 'nahikoa da' esatera bultza gintuen azken tanta. ETBren lana esleitzen duen Mixer enpresak lehiaketa publikoa lortzeko salneurriak bota (ETBren aginduz omen) eta hurrengo egunean langileoi beherapenak ezartzera etorri zitzaigun. Azken sei urte hauetan %37 batzen dute jaitsierek". Telesail honen aurreko denboraldiak ikusi behar dira, ordea, kale itsu honetara nola iritsi den jakiteko.

PLANIFIKATUTAKO DESINBERTSIOA

Euskarazko bikoizketako lan-baldintzen historia txikia osatu du Alkizak elkarrizketa hasi eta berehala, azalduz nola 1980ko hamarkadan, ETB hasi zenean, indarrean zegoen Espainiako Estatuko hitzarmen bat bikoiztaileen lana erregulatzen zuena; eta nola hori bertan behera geratu zen eskumenak autonomia erkidegoetara pasatzean. "Hor hasi zen ETBn dena maldan behera. Ez ETBn bakarrik, ia estatu guztian izan zen ostikada. Lan asko zegoen zentroetan, Madrilen eta Bartzelonan, mantendu egin zen hitzarmen hartan markatzen zena. Baina gainontzean, barra librea ezarri zen. Hemen bezala Mediterraneo aldean ere, telebista autonomikoak zeuden tokietan, erakunde publikoetatik bultza zuten prekarizatzea eta intrusismoa".

Sektoreko baldintzak deserregulatzeaz gain, 1990eko hamarkadaren erdialdera izandako bilera-txanda "famatu" bat aipatu du Alkizak, euskarazko bikoizketak zeuzkan aurrekontuak argaltzen hasteko inflexio-puntu gisa. "Hor erabaki zen, baina ezin zen moztu kolpean. 2000tik aurrera joan ziren murrizten, urtero gutxitzen zituzten orduak eta gero, gainera, agindutakoak ez zituzten betetzen. Nola enpresak lotuta dauzkaten, esaten zieten 'emango dizut datorren urtean' edo 'epaitegira joan zaitezke, zuk ikusiko duzu'".

Sistema bat ezarri zen bikoizketak nork egingo zituen esleitzeko, Alkizaren arabera Espainiako Estatu osoan bakarra dena: ETBk lehiaketa ateratzeaz gain, Aldi Baterako Enpresa Elkarte bat bultza zuten interesatzen zitzaizkien bi enpresaren artean. "Eta horri gutxi gorabehera jartzen dizkiote lehiaketaren betebeharrak *ad hoc*, bera bakarrik izan dadin bete ahal dituena erkidegoan. Bide batez, enpresa helduta daukate beraiek nahi dutenerako. Azken bi lehiaketak beti izan dira produktuen prezioak jaitsiz. Baloratu dute produktua merkea izatea. Orduan, enpresariak egin du bere eskaintza eta hurrengo egunean etorri da guregana eta esan digu: 'Bueno, %13 jaisten dizuet'".

Funtzionatzeko modu hori hori martxan jarri zenean Bingen Zupiria zen

ENDIKA PORTILLO / FOKU

EUSKARAZKO BIKOIZKETA GALZORIAN. Urte eta erdi daramate euskarazko bikoiztaileek greban, sektorean egin den desinbertsioaren aurka. Argazkian, Xabier Alkiza (ezkerrean) eta Jose Kruz Gurrutxaga Bieuseko kideak iazko ekainean Eusko Legebiltzarrean egindako agerraldian.

EiTBko zuzendaria, alegia, gaur egun Eusko Jaurlaritzan Kultura eta Hizkuntza Politikako sailaren burua den pertsona. Horregatik, Bieuseko kideak ez dauka esperantza handirik instituzioekin hitz eginda euren egoera onbideratzeko: "Nola Bingen bera den egoeraren erantzulea, eta nola ez daukan inolako asmorik momentuz aldatzeko, instituzioekin egin genitzakeenak egintzat eman genituen".

KANTITATEAN ETA KALITATEAN SUMATZEN DEN GALERA

"Elkarte bat sortu eta baldintza duinak aldarrikatuz gogor egin dugu lan, erkidegoko hitzarmen bat lortu eta langileek eta enpresak ere hein batean, ETBren murrizketa politiketatik kanpo mantentzeko", irakur zitekeen *Jokulariak* aldizkarian Bieusek argitaratutako idatzian. "Eta erraza izan zitekeen, baldin eta lan gatazka guztietan gertatu ohi denez, inolako elkartasunik gabeko zenbaitek lanean jarraitu izan ez balute. Inolako lotsarik gabe lanbidea txikitu eta, enpresa bakar horren, lan baldintzak guztiz kaskartu dituen enpresa horren defendatzaile bihurtu den dozena eta erdi eskas elementuri esker". Izan ere, EAEko agintariek sektorea argaltzeko emandako urratsez gain, beste arazo bati ere egin behar izan diote aurre Bieusen bildutako bikoiztaileek: greba hasi zutenetik, beste pertsona batzuk ari dira telebistan haiek egiten zituzten bikoizketak egiten.

"Guk lan egiteari utzi eta lehenbiziko bost edo sei hilabeteetan, ETBko marrazki bizidunen ahotsetan emakumezkoak lau neskaren artean egin dituzte, denak. Den-denak", esplikatu du Alkizak. "Nik galdetzen diot nire buruari, nik erantzuten diot nire buruari eta hemen dagoen hirugarrena ere ni naiz. Frogak dauzkagu grabatuta. Eta hori ETBk onartu egiten du, ez zaiolako inporta. Zer gertatzen da? ETB3k %0ko audientzia ematen duela. Ez dago produkturik, ez daude behar bezala eginak, aspergarriak dira... Baina ez dio inori axola, zeren axola behar dionari, Kultura eta Hizkuntza politika Sailari, ez zaio inporta".

Euskarazko merkaturik ez egotea seinalatu du arazotzat, Alkizaren ustez konpetentzia badagoen lekuetan gutxieneko batzuk betetzea ezinbestekoa delako: "Merkatuari kaka bat ematen badiozu produktu bezala, esaten dizu joateko pikutara. Aldiz, ETBri ematen badiozu hirugarren mailako produktu bat, esaten dizu: 'Jaitsi prezioa pixka bat eta ekarri'". Salatu duenez, bikoiztaile lana egiteko ia edonor hartzen dute gaur egun, lehenesten dena merke egitea delako. "Horrek ekarri du askotan lanak desastre bat izatea. Lanean ari direnek ez dute onartu nahi, baina ari ez garenok onartzen dugu lasai ederrean. Zeren gurea, azkenean, aktuazio bat da eta egun txarrak izaten dira. Eta hor geratzen da, betiko grabatuta. Gauzak ez dira egin behar bezala". Egiteko modu horren erakusgarri, lanbidean izan duen momenturik tristeenetakotzat du bilera batean Asier Larrinaga EiTBko Euskara Zerbitzuko buruak honakoa esan zion eguna: "Zuek txorizoak egin behar dituzue". Mespretxatu egin da euskarazko bikoizketa Alkizaren ustez, produkzioaren kate osoan: itzultzaileen lana zanpatua, presaka lan egitera behartutako audio teknikariak, gutxi ordaindutako bikoiztaileak...

Kontrapuntua, politika kulturalez aritzean beste askotan gertatzen den bezala, Katalunian dago. Ez bakarrik bikoizten den ordu kopurua mantendu dutelako –1.000 ordu inguru urtean, EAEn gaur egun egiten diren 120 orduen aldean– baizik eta hamarkada ugaritan mantendu delako apustu hori, horri esker katalanezko bideoteka oparoa osatuz. "Kristoren ondarea daukate", dio Alkizak, Kataluniako kasuaren beste berezitasun batzuk esplikatu aurretik: "Industria gaztelaniazko zinema bikoiztera Bartzelonara joan da eta han egon da profesional talde oso on bat. Eta gaztelaniaz bikoiztetik katalanera pasatzean,



ez dute egin berdin, egin dute hobeto, beraien hizkuntza sentitzen dutelako. Gaztelaniaz ari diren ahots oso potenteak Bartzelonan ari dira lanean eta katalanez ari dira. Zaindu dute beraien produktua, gauzak ondo egin dituzte eta etenik gabe".

DESAGERTZEN UTZIKO DUTE EUSKARAZKO BIKOIZKETA?

Bitartean, euskarazko bikoizketa azken hamarkadetako momenturik zimelenean dago. Urte eta erdi greban pasa ondoren, lan hitzarmen kolektiboa lortzea eta Zineuskadiren bidez bikoizten diren pelikulen bidez berriz eragiten saiatzea dira Bieusek egoera aldatzeko dauzkan bi lan ildo nagusiak. Erakundeetan giltza duten pertsonen jarreraz aparte, euskalgintzak ere ez du auzi honetan askorik bultza, alor horretako eragileen eta instituzio publikoen artean nagusi den adostasun-giroa tarteko. Alkizak dioenez, Soziolinguistika Klusterrari proposamen bat egin zioten: aztertzea zer-nolako inpaktua daukan euskararen erabileran gaur egungo haur eta gazteek kontsumitzen dituzten ikus-entzunezko ia guztiak erdaraz izateak. Azkeneko ondorioa hori baita: euskara eskolan bakarrik entzuten duten milaka eta milaka haur eta gazte, pantaila baten aurrean jartzen direnean hizkuntza horretan ia erreferenterik aurkitzen ez dutenak. Gero heldu bihurtuko direnak, euskaraz telesailik eta pelikularik apenas ikusi gabe, ikus-entzunezkoek geroz eta garrantzi handiagoa duten mundu batean.

Invictus izan zen Alkizak bikoiztu zuen irudi errealeko azken filma, Clint Eastwoodek 2009. urtean zuzendua. 1980ko hamarkadan jaiotako jendeari dagoeneko ahazten ari zaio zer zen euskaraz bikoiztutako pelikula bat ikustea. 1990ekoan edo ondoren jaiotakoek, agian, ez dakite zer den ere. Bikoizketa ia zerora gutxitu duten erabakiak protesta handirik eragin ez zezaten erabilitako argudioek ere –azpidatziak edo bertako produkzioa gehiago sustatu behar zirela, adibidez– ez dute praktikan ondorio handirik ekarri, ez da ikusten beste ildo horietan politika eraginkorrik. Xahuketa bai: Bieuseko kideak gogora ekarri du azken hamarkadetan ikus-entzunezkoei lotutako azpiegituretan zenbat diru gastatu duten instituzioek, Oiartzungo Zinealdean, Zuatzuko poligonoan dagoen PI@-n edo duela ez asko Tabakaleran ireki duten 2deo-n esaterako, lehendik ere bazeuden –eta asko erabiltzen ez diren– instalazioak ahaztu gabe, Miramongoak kasu, Gipuzkoatik atera gabe aurki daitezkeen adibide batzuk bakarrik aipatzearren. "Hemen kristoren etxeak pagatu dira eta gero ez daukagu jateko. Azpiegitura soberan dago, behar dena ekoizteko dirua eta lehengaia da".

> ***"Bingen Zupiria da egoera honen erantzulea eta ez dauka inolako asmorik aldatzeko"***
>
> Xabier Alkiza (Bieuse)

Bistan denez, Alkiza ez da oso baikorra: "Ez nuke esango ez denik galduko", adierazi du, euskarazko bikoizketaren etorkizunaz galdetu diogunean. "Oso larri gaude, ez dago hainbeste denboran irauterik". Eta indarrak akituta oraingo profesionalen belaunaldia behar bezalako transmisiorik egin gabe erretiratuko balitz? Zerotik hasi beharko dute bihar edo etzi ikus-entzunezko lanen bat euskaraz bikoiztu nahi dutenek? Edozein modutara bikoiztuko da euskarak publiko urria duelako? "Hemen egon da ikasketa bat eta hobetzen joateko gogo bat, gauzak beste modu batean egiteko", esplikatu du Bieuseko kideak, urtetan egindako ibilbidea errepasatuz. "Penagarria da", esan du egungo egoerak etsita, elkarrizketaren amaiera aldera. ●

LIBURUA

Just a little bit harder

KARANBOLA HIRUKOITZA. EMAKUMEEN PRESENTZIA EUSKARAZKO ANTZERKI SORKUNTZAN

ENERITZ ARTETXE ARANAZ

EHAZE, 2019

AMAIA ALVAREZ URIA

Eusko Jaurlaritzak arte eszenikoetan generoaren egoera ezagutzeko enkargua egin zion Eneritz Artetxeri. Berak datuak bildu eta 22 sortzaileri elkarrizketa egin zien. Honatx emaitza: kultur sorkuntzan diharduten emakume euskaldunen egoera.

Hego Euskal Herriko antzerkiaren munduari ikuspegi feministatik begiratu dio Artetxek, berriki Lorea Agirrek eta Idurre Eskisabelek euskarari, Eider Rodriguezek euskal emakume idazleei eta Uxue Alberdik emakume bertsolariei egin bezala.

Silvia Federici eta Angela Davisen laguntzarekin ezarri du markoa: heteropatriarkatu kapitalistan bizi gara eta horren isla topa dezakegu arte eszenikoetan. Euskal emakume sortzaileek zapalkuntza hirukoitza jasaten dute, baina, zapalkuntzarekin batera eraldaketarako aukera dagoela dio.

Bertsolaritzan legez, ikasketetan emakumeak gehiengoa diren arren, profesionalizatzean gizonezkoak dira nagusi. Honez gain, estereotipoak eta genero rolak betetzen dira lanpostuetan, izan ere, gidoilari, zuzendari eta eszenografo gehienak gizonezkoak dira, argi diseinatzaile guztiak gizonak eta jantzigintzan denak emakumeak.

Literaturan moduan, emakume izaera gailentzen da. Emakumeak dira sortzaile izan aurretik eta ondorioz gizonen begiradatik baloratzen da euren lana; gorputz eder, desiragarri eta gazteak izan daitezen, haien talentua bitxikeriatzat hartuz, ikusgarritasun eta aitortza txikia emanez, edo haiek bereziki lantzen dituzten antzerki-generoak bigarren mailakotzat joz.

Antzerki-sormen egiturak patriarkalak dira: hierarkikoak eta androzentrikoak. Hala ere, dramaturgia berriak daude, autoretza kolektibodunak eta lan egiteko saretzen direnak. Piramidearen oinarriei begiratuta andrak dira nagusi, gainera gaztetxeak, antzerki jaialdi txikiak eta sorguneak aipatzen ditu bestelako ereduen erakusgarri.

Egilearen arabera arazoa boterea da: "Oso lan prekarioa da gurea eta ogi apurrak partekatzea ez da inoren gustukoa izaten". Kontzientzia hartzearen eta praktika feministen beharra aldarrikatzen du, diskurtsoaz harago, nork bere burua aztertuta. ●

MUSIKA

Ahalegin txalogarriak

Zuzendaria: Iker Sánchez Silva. Donostia Opera Abesbatza. Zuzendaria: Jagoba Fadrique. Bakarlariak: Marcelo Guzzo (baritonoa), Xavier Casademont (baxu-baritonoa), Ainhoa Garmendia (sopranoa), Francisco Corujo (tenorea), Miren Urbieta (sopranoa), María Martín (sopranoa). Eszena-zuzendaritza: Pablo Ramos eta Carlos Crooke.

MOZARTEN *DON GIOVANNI* OPERA

OPUS LIRICA ORKESTRA

KURSAAL AUDITORIOA

Otsailak 21 eta 22

MONTSERRAT AUZMENDI EL SOLAR

Opus Lirica elkarteak ia sei urte daramatza gogor lanean, Donostiak opera denboraldi egonkorra izan dezan. Ez dirudi egindako ahaleginak behar bezalako emaitzak eman dituenik, izan ere, urte hauetan egindako lanaren ondoren, elkarteak egindako funtzio batzuez goza dezakegu, baina opera denboraldi baten ideiak ez du oso argi jarraitzen.

Bestalde, laguntza edo bitarteko ekonomiko nahikorik ez dagoenez, urtez urte gertatzen diren antzezpenak zuzenak izaten dira, baita onak ere, baina beti zer edo zer falta zaie benetan nabarmenak izateko.

Oraingo honetan Opus Liricak *Don Giovanni* txukuna eskaini zigun, elementu aipagarriekin, baina baita nahiko kritikagarriak ziren beste batzuekin ere. Gainera, nahiz eta bertsio honen berezitasun batzuk asmo onekoak izan, eskainitako bertsioaren listoia goratzeko nahiarekin, emaitza lausotu baino ez zuten egin.

Adibidez, agertokian jarritako Tomas Murua zarauztarraren eskulturak elementu apaingarri kontzeptual baliotsuak izan litezke, eta ziur asko hala izango dira, baina emanaldiaren testuinguruan ez zuten egiazki ezer aportatzen, eta aitortu behar da eszenaratzea behar bezala garatzeko traba egiten zutela.

Izan ere, eszenatoki pobreak eta jarritako eskultura-elementuek eraginda, batzuetan bertsio kontzertu baten aurrean geundela ematen zuten, eta ez bertsio errepresentatu baten aurrean, eszena-ekintza mugatua baitzen.

Dena dela, taldeak egindako ahaleginak zorionak merezi ditu. Donostian urtean pare bat aldiz kalitate maila onargarriarekin egindako operez gozatzeko aukera izatea pozgarria da.

Don Giovanni honen gauzarik onena, zalantzarik gabe, emakumezko bakarlarien interpretazioak izan ziren, bereziki Miren Urbietaren jarduna. Izan ere, gripearekin egon arren, Doña Elvira sendoa interpretatu zuen, ahotsaren proiekzio on batekin eta interpretazio sinesgarri eginez.

Ainhoa Garmendiak ere bere kalitate ukitua jarri zuen saio honetan. Beti bezala, agertokian egoten dakiela erakutsi zuen, baita bere ahotsaren kalitatea, biribiltasuna eta adierazkortasuna ere.

Gainontzeko bakarlarien lana duina izan zen, baina bikaintasun momentuetara iritsi gabe. Orkestrak eta abesbatzak, berriz, taldeari biribiltasuna ematea lortu zuten. ●

Berrirakurtzen

MARTA SENDIU DOSPORDOS

BASQUE MISREADINGS

GASTEIZKO OIHANEDER EUSKARAREN ETXEAN

2017ko urtarrilaren 3an, Jone San Martinek honako hau esan zuen *Berria* egunkarian: "Gure mugek azaleratzen dute gure sormena ere". Edu Zelaietak, aldiz, zera irakurri zuen: "Gure sormenak azaleratzen ditu gure mugak ere".

Egitura eta hitz berberak dituzten bi esaldi hauek esanahi ezberdina dute. Irakurketa bihurri baten ondorioz, gogoak hitzekin jolasteko asmoa duela ematen du. Gaizki begiratutako horiei etekina atera nahi die idazle gasteiztarrak, eta hori da, hain zuzen, *Basque Misreadings* erakusketaren bidez egin nahi duena: gaizki irakurritakoei zentzu bat ematea.

Hizkiekin, testuekin eta literaturarekin, beste mundu batera eraman nahi gaituenarekin elkarlanean, Eneko Ugarte artista plastikoa dugu. Arabarrak eman dio forma erakusketari. Zelaietak aukeratutako eta aldatutako testuak zentzu artistikoan berrinterpretatu ditu. Horretarako, hainbat disziplina baliatu du: zuri-beltza, kromatikoa eta hiru dimentsioko piezak. Azkenengo hauek jendeak ukitzeko, sartzeko eta jolasteko artelanak dira.

Artelan horiei esker, Oihaneder Euskararen Etxeko erakusgela zuria koloreztatu da. Askotariko formak eta materialak dituzten sorkuntzak jasotzen dituzte hormek. Espazio osoan sakabanatzen dira artelanak, eta bakoitzak testu bat darama beheko aldean.

Hormetatik haratago, lurrean sakabanatuta daude *Berria* egunkariak. Bidexka bat irudikatzen dute eta paperez egindako antzerki batera eramaten gaituzte. Gelaren erdian, hiru dimentsioko kutxa zuri batzuk daude. Marrazki urdinak dituzte, baina desordenatuta daudenez ezin da jakin zein den artelan horren benetako irudia, gerturatzen direnen eskuek erabakiko dute zein den artelan horren benetako itxura.

Modu anitzetan ulertu daitezkeen testu horien lehenengo bi interpretazioek ematen diote norabidea esposizioari. Hala ere, beste bi artistak ere parte hartzen dute diziplinarteko saio honetan: Ane Gebarak eta Beñat Goitiak. Bi sortzaile gazteek haien irakurketa egiten dute testuen inguruan. Ipuin kontalariak, Zelaietaren irakurketaren guztiz kontrakoa egin du, bere ahozkotasunerako bertutea erakutsiz. Beñatek, aldiz, gitarra doinuen bidez helarazi digu bere interpretazio propioa.

Beraz, Gasteizko sortzaile hauen helburua irakurritakoak begiratzean gogoak nora eramaten gaituen erakustea da. Inolako zuzenketarik egin gabe irakurritakoari eduki bat egoztea. Hausnarketarako bide ezberdin bat proposatu nahi digute, jarrera kritikoz osatua eta umore kutsuarekin. ●

Bertso-zopa

Osatu Aitor Bizkarrak 2018an Berrizen botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Lurraren pean sar nindaiteke.* Gaia: *Asmo onez egin dozu baina ez dau ondo hartu.*

Maitasuna da hain _____latza
baina lora usaiduna
ene zelako egokiera
hemen _____zaiguna!
Asmoa ona neukan aizazu
eta bihotza_____
baina ordea buru-argia
zure bekozko iluna
letra hautatu, hitzak_____
hain gelditu da txukuna
nire arima bertan utzi dut
ta aizu maite kutuna
"zer ba ez duzu oindik erantzun
bidalitako_____?" (bis)

Zure alboan boteretsu naiz
nahiz ahul izan_____
maitasunean dena eder da
hasierako liluran
dagoeneko ez dakit baina
hasi ala _____dan
nire eskua dauka jatorri
zure postontzia jomugan
hitzak _____onez hautatu ditut
aitorgarriaren mugan
nahiz bolaluma busti egin dudan
sentimenduen_____
zuk ez zenuen jakiterik nahi
nik zenbat maite _____. (bis)

Ez du erantzuten denbora joan
ahaztu naiz udako lorez
hementxe nago nire etxean
masailak zuri_____
ongi beharra ta ongi nahia
bilakatu zait ondoez
jada zer egin ere ez dakit
_____beste edo ez
neure buruai hala egin diot
"ez haiz eroriko" _____
nire asmo ona gaizki hartu du
erantzuna baitan gordez
gaizki hartua ta asmo txarra
har dezadan modu_____. (bis)


GEDAR.EUS

C	V	U	F	U	S	A	E	F	I	F	A	T	L	G
A	S	M	O	Z	N	O	H	E	Z	N	Z	G	B	A
I	P	O	Z	U	U	G	O	T	H	C	A	U	G	U
N	T	E	P	I	B	O	J	C	U	N	R	F	B	Z
A	H	I	T	X	U	R	A	N	T	U	R	U	R	A
D	I	G	M	O	D	N	D	E	A	O	O	A	P	C
U	B	A	U	P	E	R	V	Z	E	P	K	K	E	N
T	H	A	U	T	A	T	U	Z	R	B	O	A	P	A
N	V	D	Z	C	U	S	O	O	O	L	J	B	T	R
I	Z	P	J	P	S	N	M	H	O	N	O	Z	M	U
Z	J	U	T	F	A	E	A	R	N	Z	E	B	U	T
E	S	F	G	L	S	A	E	F	N	P	I	Z	T	N
V	R	O	M	G	M	Z	V	D	Z	G	H	H	I	I
E	R	N	D	P	S	F	U	F	U	C	I	G	A	P
G	V	F	Z	U	L	N	U	N	T	V	M	P	M	I
M	U	S	P	Z	T	C	A	N	C	E	B	J	A	R

Sudokua

ERRAZA

6	3		1	9			4	5
2		5			7			
7	4			8				
	2	7	9				5	3
4	5						6	7
3	1				5	4	9	
				4			3	1
			2			5		4
1	8			5	9		7	2

ZAILA

				7		9	5	
					5		6	
		6	2		1			
8		4						3
		2	7		4	5		
5						4		7
			4		6	3		
	2		8					
	8	3		2				

Gurutzegrama



DANI BLANCO

EZKER-ESKUIN:

1. Apaiz ortodoxo. Hegazti zangaluze. **2.** Alderantzi. **3.** Ordaintzeko betebehar. Haur-oihal. **4.** Altxor. 51 erromatar zenbakiz. **5.** Unibertsitate Eskola. Besoaren eta besaurrearen arteko giltzadura. **6.** Gizonezko izena. Dozena-erdi (alderantziz). **7.** Berarenak. **8.** Agortu aditzaren infinitiboa. Goiko alde, gailur.

GOITIK BEHERA:

1. Berpiztea. **2.** Oroz gainetik, ... gainean. **3.** Barazki krema. Aleak haustu. **4.** Noren atzizkia. Kalentura. **5.** Zigarro. **6. Argazkiko abeslaria.** Norbait erortzeko zorian dagoenean esaten den hitza. **7.** Informazio unitate. Haur txiki. **8.** ... izan, oso gertu. **9.** Seriotasunez.

EBAZPENAK

Maitasuna da hain gauza latza/baina lora usaiduna/ene zelako egokiera/hemen tokatu zaiguna!/Asmoa ona neukan aizazu/eta bihotza biguna/baina ordea buru-argia/zure bekozko iluna/letra hautatu, hitzak hautatu/hain gelditu da txukuna/nire arima bertan utzi dut/ta aizu maite kutuna/"zer ba ez duzu oindik erantzun/bidalitako gutuna?" //Zure alboan boteretsu naiz/nahiz ahul izan itxuran/maitasunean dena eder da/hasierako liluran/dagoeneko ez dakit baina/hasi ala amaitu dan/nire eskua dauka jatorri/zure postontzia jomugan/hitzak asmo onez hautatu ditut/aitorgarriaren mugan/nahiz bolaluma busti egin dudan/sentimenduen pinturan/zuk ez zenuen jakiterik nahi/nik zenbat maite zintudan. //Ez du erantzuten denbora joan/ahaztu naiz udako lorez/hementxe nago nire etxean/masailak zuri kolorez/ongi beharra ta ongi nahia/bilakatu zait ondoez/jada zer egin ere ez dakit/buruaz beste edo ez/neure buruai hala egin diot/"ez haiz eroriko" promes/nire asmo ona gaizki hartu du/erantzuna baitan gordez/gaizki hartua ta asmo txarra/har dezadan modu onez.

ERRAZA

6	8	3	1	9	2	7	4	5
2	9	5	4	3	7	8	1	6
7	4	1	5	8	6	3	2	9
8	2	7	9	6	4	1	5	3
4	5	9	8	1	3	2	6	7
3	1	6	7	2	5	4	9	8
5	7	2	6	4	8	9	3	1
9	6	3	2	7	1	5	8	4
1	8	4	3	5	9	6	7	2

ZAILA

3	4	1	6	7	8	9	5	2
2	9	6	8	3	4	5	7	1
4	2	5	8	1	3	6	7	9
9	1	7	4	5	6	3	2	8
5	6	9	1	3	2	4	8	7
1	3	2	7	8	4	5	9	6
8	7	4	5	6	9	2	1	3
7	5	6	2	9	1	8	3	4
2	9	8	3	4	5	7	6	1
3	4	1	6	7	8	9	5	2



ESKER-ESKUIN:
1. POPE, 1BIS, 2. IRUNTZI, 3. ZOR, XATAR, 4. TRESOR, LI, 5. UE, UKONDO, 6. ENEKO, IES, 7. HARENAK, 8. AGOR, TINI.

GOITIK BEHERA:
1. PIZTUERA, 2. OROREN, 3. PURE, EHO, 4. EN, SUKAR, 5. TXOKOR, 6. IZARO, ET, 7. BIT, NINI, 8. ALDEAN, 9. SERIOSKI.

Garazi Lizarraga Lertxundi

UTIKAN PISU BALANTZA

ELIKADURA, BESTELAKO IKUSPEGITIK

Familian hazia da Garazi, baina libre. Loturarik gabe, askatasun osoz. Ikasketa garaian ordea, Gasteizek harrapatu egin zuela aitortu digu. Gutxitan itzultzen omen zen etxera. Elikadura ikasketak burutu zituen bertan, eta baita master bat ere, haurtzaroa eta ariketa fisikoa batzen zituena; "inspirazio bila" zebilela erraten du berak. Lan eredua eta edukiak ordea, ez zituen atsegin. Ordenagailua, mahaia eta lau aulki ditu kontsultan. Baita pantaila erraldoi bat ere. www.sinazucar.org atariko argazkiak ikus daitezke bertan. Jaten duguna garela esan digu, beraz hobe berehalakoan hainbat elikagai gure dietatik kenduko bagenitu. Gehiago jakin nahi? Sartu www.garazilizarraga.com atarian.

"Nire helburua jendeak elikadura osasuntsu eta orekatua eramaten ikastea da"

Elikadura osasuntsua defendatzen du Garazi Lizarraga Lertxundik (1989, Irun). Gasteizen burutu zituen elikadura ikasketak. Bi urtez ostalaritzan aritu ostean, bere kasa hasi zen elikadurari loturiko "bestelako mundu" batean murgiltzen. Ordurarte ikusi zuenarekin ez baitzuen bat egiten. Jaten denaz gain, nola jaten den ere aztertzen du Lizarragak. Dietista da, baina balantza bazter batean du kontsultan. Garrantzia kentzen saiatzen dela esan digu, defendatzen duen elikadura eredua, zenbakietatik haratago baitoa.

AITZIBER ZAPIRAIN **IRANTZU PASTOR**

Zer da Fylab, laborategia?

Osasunari loturiko zentroa da. Hainbat espezialista ari gara bertan lanean, izan dietetika alorrean, psikologian ala fisioterapian. Ohartzen gara, gugana jotzen duten pertsonen arazoak lantze bidean, hainbat adarretatik egin daitekeela lanketa. Nire esparrura etorrita, adibidez, elikadurarekin loturiko arazo bat oso lotua egon daiteke psikologiarekin. Beraz elkarlan horrek aukera gehiago eskaintzen dizkio datorrenari, landu eta konpondu nahi duen hori errotik hartu eta modu integralean gainditzeko. Antsietate kasu asko, adibidez, elikadurarekin loturik egon ohi dira. Dieta ez egoki batekin. Beraz kasu horretan, kotsumitzeko bidea landu beharko genuke arazoa duen pertsona horrekin. Bestalde, lan paraleloa egin beharko luke psikologoarekin. Kasu horretan gainera, elikadura laguntza faktore bat litzake seguruena, iparrorratza lan psikologikoa izanik.

Zuk nola egiten duzu lana? Nolakoa da lehen kontsulta?

Nik heziketatik lantzen dut elikadura. Elikadura osasuntsua aldarrikatzen dut. Helburua izan ohi da, etortzen den orori, osasuntsu jatea zer den erakustea. Lehen kontsultan informazioa atera ohi dut. Bere egunerokotasuna eta ohituren inguruan galdetzen diot. Otorduetako ohiturak, noiz eta nola jaten duen, ariketa fisikoa egiten ote duen... Informazio oro da interesgarri eta garrantzitsua dieta osasuntsua izate aldera. Hala ere, pertsona bakoitzak bere erritmoa du, eta hori errespetatzea ezinbestekoa da. Zuritik beltzerako aldaketek ez dute luze irauten. Nahiago dut poliki eta sakon lan egin, emaitza azkar eta onak bortxatu baino. Hori ez baita epe luzerako izaten.

Normalean ez dut kalorien formula erabiltzen, hori baino sinpleagoa eta praktikoagoa den formula baizik: elikagaiak jan eta ultraprozesatuak kendu gure egunerokotasunetik. Hamabost kilo galtzeko premia duena etorri daiteke nigana noski, eta bere osasuna jokoan badago galduko ditu kilo horiek. Elikadura osasuntsuak

"BALANTZARI GARRANTZIA KENTZEN SAIATZEN NAIZ, BAINA NORMALEAN GEHIENGOAK PISUAREN JARRAIPENA EGIN NAHI IZATEN DU".

ere pisua apaltzea bila lezake, baina behar den erritmoan. Obesitatea edota gehiegizko pisua ez baitira osasuntsuak.

Zure ikuspegitik, zein da dieta osasuntsua?

Nik plater nutrizionala erabiltzen dut. Garai batean oso modan egon zen piramidea ez dut gustuko. Izan ere, piramide goialdean jartzen diren goxoki, azukre edota alkohola ez daude dieta osasuntsu baten barruan. Beraz nire iritziz ez lukete agertu beharko. Horrek ez du esan nahi inoiz kontsumitu ezin direnik, baina nik nahiago dut ikusgarritasunik ez ematea dieta osasuntsu baten iruditegian, berez jendeak jaten dituelako. Uste dut osasungintzako profesionalok ez genituzkeela agerrarazi behar.

Plater nutrizionala batez ere bazkari eta afarietan zer jan beharko genukeen azaltzeko erabiltzen dut. Barazkiak dira dieta osasuntsuaren zutabe, eta gainontzeko osagarriak ere txertatuak daude noski.

Nola pasa ordea piramidetik plater nutrizionalera, "tentazioak" ezabatuz?

Nik ez dut inoiz deus kentzen dietatik. Nigana datorren pertsonak kendu behar ditu halakoak bere dietatik. Berak erabaki behar du zer kendu eta noiz arte. Berak hartu behar du konpromisoa eta ez nik. Bere osasunaren aldeko lana egiten ari da azken finean. Berak gozatuko du emaitzarekin. Ni bide horretan laguntzeko nago. Badago bizkotxo osasuntsu bat etxean egiteko aukera, eta aukera hobea da bai, baina ezin dugu ezta ere horretara lerratu.

Zer jan eta zer ez erabakitzea, hautu politikoa dela esango zenuke?

Bai, noski. Baina ez dut uste une hauetan nigana etortzen direnek behintzat hala pentsatzen dutenik, edo horretaz kontziente direnik. Arazoa konpontzera etortzen dira gugana. Nik esan diezaieket jaten duguna garela, hala uste baitut, baina azken batean nahiko lan izan ohi du berak elikadura osasuntsu bat martxan jartzearekin. Ez baita erraza, ohiturak asko aldatzea eskatzen dio jende askori. Kontsumoa ere begiratzeko esaten diet. Sasoian sasoikoa jateko adibidez. Nik osatzen dizkiedan menuetan, hori errespetatzen ahalegintzen naiz.

Tranpak detektatzen dituzu?

Kar, kar, kar... balantzari garrantzia kentzen saiatzen naiz, baina normalean gehiengoak pisuaren jarraipena egin nahi izaten du. Hitz egiten hasten garenean dena errespetatu dela dirudi, egunez eguneko errepasoari ekin orduko aldiz, bateko eta besteko erorketak eta huts egiteak azaleratzen dira. Oztopoak gutxitzen doazen heinean, hilabetera luzatzen dugu kontsulta epea.

Haur obesitateak kezka piztu ohi du.

Kezkagarria baita. Haurrak pisuarekin arazoak dituela esanez etortzen dira guraso asko. Nik kasu horietan familia osoa ekarrarazten dut. Gehienetan familia osoak ikasi behar baitu osasuntsu jaten eta ez haurrak soilik. Gainera gaia oso bortitza izan daiteke haurrarentzat. Elikadura osasuntsua etxetik hasten dela esaten diet. Eta elkarrekin sukaldatzera animatzen ditut. Osagai ezberdinak erabiliz, modu dibertigarrian eginez, errazagoa izan ohi da txikienak ere dieta egokira bideratzea. ●

BIDALI ZURE HARRIKADAK: **BERANDUEGI@ARGIA.EUS**

Osakidetza kolapsatu dute kopako finala galtzeko beldurrez paniko atakeak izan dituzten athleticzale eta realzaleek



"Koronabirusari aurre egiteko prest geunden, honetarako ez", adierazi du Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuak, Donostiako ospitalea, Basurtukoa eta Gurutzetakoa kolapsatuta geratu ondoren, milaka eta milaka athleticzale eta realzale antsietate atakeekin ingresatu behar izan dituztelako. Bilboko eta Donostiako taldeak Espainiako errege kopako finalean izango direla jakin eta astebetera, zaleak hasi dira pentsatzen zer pasako den beren talde kuttunak partidua galduz gero. "Beste ekipokoa den koinatuaren adarjotzeak mende bat iraun dezake", konfirmatu dio Beranduegiri EHUko Psikologia fakultateko Aintzane Ganbaraondok: "Normala da horren aurrean panikoa sentitzea, ez dago tratamendu posiblerik". Bestalde, Euskaltzaindiak arau express bat argitaratu du euskal taldeak animatzeko "goazen" espresioa ontzat emanez. Zenbait euskaltzalek, hala ere, oraindik erdarakadatzat jotzen dute eta ordu erdiko protesta egingo dute Sevillan partiduaren aurretik. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Euskal Irrati Telebatzoki

Irudia: @mikelotero

Grafitigile dislexiko magoa



AUZAPEZ BAT SEKRETAZ MOZORROTURIK

Auzapezak kargu erlijiosoak direla uste du Hegoaldeko euskaldunen %92k

Era berean, Jean-René Etchegaray "ezkerrekoa" izan daitekeela sinetsita bizi dira. Horrelako ezjakintasunei aurre egiteko, ARGIAk datorren astean argitaratuko du Ipar Euskal Herriko politika dummientzat gida-liburua, martxoaren 15ean eta 22an egingo diren herrietako hauteskundeetan interesa duten Hego Euskal Herriko abertzale eta euskaltzaleak ez daitezen sentitu Maskaradak ikustera joaten diren manexak bezala. Liburuak "euskara > hegoaldera" hiztegi txiki bat edukiko du, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako euskaldunek euren dialektoan uler ditzaten Hiztegi Batuan dauden hainbat kontzeptu. Horri esker jakingo dute, adibidez, "bozak" ez direla abesbatzen lehiaketak; "prefeta" ez dela gizakien artean jainkoaren irakaspenak zabaltzen dituena, baizik eta Macronenak; eta "ekologia" hitzak Ingurumena zaintzearekin zerikusia duela –beharbada azken hau konprenitzea kostako zaie gehien basque-españulei, Zaldibarkoa bezalako gauzak ikusirik–. ●


PAPE NIANG
HASIERA BERRI BAT
Mikel Garcia Idiakez
Amul been nit ku leegalul
inor ez da ilegala
ARGIA
LIBURUA SALGAI!
14€*
EROSI HEMEN: AZOKA.ARGIA.EUS
*Bidalketa gastuak 4 €

Bizi nahi duen herria!

Jende gehiagori
ahotsa emateko,
lagun gehiagorengana
heltzeko eta
eragiten jarraitzeko
EGIN ARGIAKOA!

ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA

ARGIA